



## Ikastetxeetan izena emateko epeak aldatu dira aurten

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH ikasi behar duten neska-mutikoen aurrematrikulazio epea otsailaren 21etik martxoaren 7ra zabalduko da. Berzue ikasturteekin konparatuz, ia hilabete bat aitzindu da hauentzat, eta Batxilergo zein Lanbide Heziketakoentzat, berriz, maiatza bitarte gibelaratuko da. Nafarroako Gobernuko Hez-

kuntza Departamentuaren erranetan, «*hiru urteko haurren gurasoei berdin zaie izena hilabete lehenago edo berandoago ematea*». Administrazioarentzat, aldiz, aldaketa hauekin prozesua aunitz azkartzen da:

**Derrigorrezko Hezkuntzan otsailaren 21etik martxoaren 7ra, eta Batxilergo eta Lanbide Heziketan maiatzaren 2tik 12ra**

«*ikasle gutiago izanagatik, Batxilergo eta Lanbide Heziketa aurrematrikulazioa baino zailagoa baita haurrena*».



**3 Elkarriketa: Elizondoko AEKren egoitza berria**

Suinki izena jarri diote otsailaren 18an inauguratuko duten euskaltegiari.

**4 Erreportaia: 100 urte bete dituzten enpresak**

Mena Argazkidenda, Ostiz denda eta Funvera enpresak omendurak izan ziren lanean mende bat egiteagatik.

4.000m<sup>2</sup>ko  
erakusketa  
mobleak  
ikusteko



Sarrera BERATik da  
Alkaiagako industrialdean  
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4  
31789 LESAKA

Tfnoa.: 948 630 537  
Faxa: 948 631 443

*MUEBLES AMETS*en  
neurrira egindako altzariak;  
gaztaina, haritz edo gerezian.  
Etorri eta kontsultatu  
aurrekontua.

Larunbat arratsaldetan irekia



## DATUAK.....

❖ Otsailaren 18an inauguratuko dute Suinki euskaltegia, Elizondoko Jaime Urrutia karrikako Serorenea etxean kokatua.

❖ 22 urtez etxe partikularretan eta ikastolak utzitako lokalean eskolak eman ondotik lehen aldiz egoitza propioa izanen du Baztango AEKk.

❖ Gaur egun 4 irakasle hauek ari dira 35 bat ikasleri euskara erakusten. Erran digute-nez 30 urtekoa da euskara ikasleen bataz bertzeko adina Baztanen, eta gehienbat emakumezkoak izaten omen dira ikasleak.

TESTUA ETA ARGAZKIA:  
ASIER GOGORTZA

## ☞ Baztango AEK

# “Euskaltegi berria erreferentzia gunea izatea nahi dugu”

### EGOITZA BERRI HAU ERRENTAN HARTU DUZUE, EZTA?

Bai. Saiatu ginen Udalaren bidez lokal publikoren bat lortzen, baina ez zegoen gure beharrak asetzeko modukorik. Kultur Etxea proposatu ziguten, baina egunero material guzia atera behar genuen, eta guretzat ez ziren baldintza egokiak.

Denbora eman genuen zerbait aurkitu arte eta hondarreen bi pisu hauek hartu ditugu. AEKk ordaintzen du argia, ura eta alokairua, baina moldaketa lanetan Udalak lagundu digu.

### EGOITZA PROPIOA IZATEAK ABANTAILA DEXENTE EMANEN DIZUE, EZTA?

Bai. Hainbat talderekin biltzea espero dugu, Xaloa, Xorroxin, Gazte Asanblada, Doike... eta horretarako aukera emanen digu euskaltegiak. Denak biltzeko txoko bat izatea nahi dugu.

Bertzalde, jendearendako erreferentzia gunea izatea nahi dugu. Orain jendeak ez daki non gauden, ezta existitzen garenik ere. Batzuk ikastolarekin lotzen gaituzte, eta ikastolarekin harremanik izan ez duen jendearentzat muga bat da hori. Beraz, orain erreferentzia argiagoa izatea espero dugu. Gai-



«Jon Jauregi, Txus Pernaute, Karmentxu Etxandi eta Jasone Astibia».

nera, ikastolako lokalean gela eta ordutegi-ekin mugatuak gaude. Eskertzekoa da lokal hau utzi izana, baina lan egiteko deserosoa da.

### SUINKI JARRI DIOEZUE IZENA EUSKALTEGIARI. ZER ERRAN NAHI DU?

Orain arte ez zuen izenik, Baztango AEK zen, bertzerik gabe. Oraingo hau gurea izan den lehenbiziko lo-

kala denez bataiatzea pentsatu dugu.

Mariano Izetaren hiztegia hartu eta hor topatu genuen *suinki* hitza. *Adorez, ahaleginez...* erran nahi du. Berez Baztango hitza da nahiz eta guttik ezagutzen duten. Gure ustez su-eginki hitz jokotik heldu da.

### GAUR EGUN ZENBAT IKASLE DITUZUE?

35 bat. Gehienak Elizondokoak dira, baina orain bertan badugu baten bat Lekaroz, Amaiur edota Urdazubikoa...

### ZEIN DA EUSKARA IKAS-TERA ANIMATZEN DIREN

### PERTSONEN PROFILA?

Bataz bertzeko 30 urtekoa izanen da. Badirudi gaztetxoek EGA ateratzeko bakarrik jotzen dutela euskaltegira.

Ikasle gehienak emakumeak dira beharbada, ama taldeak beti egon dira. Orain bertan Orozkoen ama talde bat ari da euskalduntze ikastaroa egiten. Alfabetatze-ara amak animatzen dira gehienbat, haurrei eskolako lanetan laguntzeko-eta...

Gero udan EGA talde trinkoa izaten dugu, eta hor gehienbat ikasleak apuntatzen dira.

► *“Mariano Izetaren hiztegia hartu eta hor topatu genuen suinki hitza. Adorez, ahaleginez... erran nahi du. Berez Baztango hitza da nahiz eta guttik ezagutzen duten”*

# 100 urtetik goiti ofizioari lotuak

**Iazko abenduan Nafarroako Merkataritza Ganbarak bere lehen mendeurrena ospatu zuen Iruñean. Ospakizun horretan, duela ehun urte baino gehiago sortu eta gaur egun lanean segitzen duten fabrika eta komertzioak saritu zituzten. Haien artean, gure eskualdeko 3 enpresa: Elizondoko Mena argazkidenda, Doneztebeko Ostiz zapatadenda eta Berako Funbera fabrika. Meritu handia dute langile hauek, mende batez lan merkatua ikaragarri aldatzen dela kontuan hartuta, garai berrietan laketzen jakin dutelako.**

TESTUAK: **ASIER GOGOTZA**  
ARGAZKIAK: **ASIER G. ETA CARLOS OSTIZEK UTZIA**


**B**erako Fundizioa da hiruen artean zaharrena. Gaur egun Funbera izena hartu du ofizialki, baina herrian jende gehienak fabrika zaharra erratendio oraindik.

Berez 1917an sortua izan zen enpresa hau, bainan ordurako denbora aunitz eramaki zuen burniaren merkatuan lehiatzen. Bere jatorrian ola bat izandu zen, Beran tradizio handia baitzegoen gremio horretan. 20. mendean gaur egun den fabrika bihurtu zen. 1930a bitarte produkzioa haunditu eta merkatuan ere dexente hedatu zen Fundizioa. Hortik aitzinera makina bat aldiz aldatu zen nagusiz, eta gorabehera batzuen ondotik Nafarroako Gobernuak hartu zuen

1993. urtean. Orduztik honat gauzak hobera joan direla iduri du, 80 langile izatetik 155 izatera pasa baita 5 urtetan. Fundizioak iaz eskuz aldatu ziren berriz ere: Nafarroako Gobernuak Berako Save-ra enpresari saldu baitzion kapitalaren erdia baino gehiago, eta horren ondorioz bere merkatua gehiago zabaltzeko aukera ikusi du enpresak.

## Doneztebeko Ostiz zapatadenda, 1873. urtetik

Mende bat baino gehiago bete duen bertze enpresa bat Doneztebeko Ostiz denda da. 1874. urte inguruan ireki zuten, zapatadenda eta komertzio ttiki bezala. José Ostiz eta Francisca Elizari izan ziren 19. mende hondarrean Ostiz dendaren ibilbideari hasmenta eman zioten.



Eskualdean hiru dira 100 urtetik goiti dituzten denda edo lantegiak. Ezkerraldean ageri dena Felix Mena da, Mena argazkidendaren gaur egungo nagusia. Bere begien aurrean gurasoak ditu, eta lerro hauen ondoan, berriz, Elizondora etorri zen

lehen Menatarraren erretrato zaharra ageri da: Felix Mena.

Behetian, Funbera fabrikaren bi argazki, berri xamarra ezkerrekoa, mende hasierakoa ondokoa.

Azpian, berriz, Ostiz zapatadendari eman zioten saria eta aspaldiko argazki bat.



nak. Garai hartan bertze hirurik langile aritu ziren familia-rekin batera. Hoietako bati, Francisco Sansiñenari, lane-ko merituari domina eman zion Ministeritzak, 50 urte baino gehiagoz Ostizen aritzeagatik. José eta Franciscaren 5 semeetako batek, Anastasiok, negozioari eutsi eta hainbat urtetan eraman zuen dendaren ardura. Anastasio musikazale amorratua zen, Doneztebeko ban-

daren zuzendari izan zen hainbat urtez, eta Aita Donostia konpositorearekin harreman estua zuen.

Garai batean Ostiz zapata-dendan mendiko botak egiten ziren batez ere.

Eskualde guzian aski ezagunak bihurtu ziren Ostizeko bortzegiak. Mugaz bertze aldetik ere hainbat

erosle etortzen zen bortzegi famatuak erostera. Carlos Ostiz gaur egun dendako nagusia denak erran digunez zenbait ejertzitotako soldaduek ere jauntzi zituzten bortzegi famatu haiek.

Anastasioren seme batek, Jesussek, Ana Maria Apeztegia andrearekin batera tradizioa segitu zuen. Pixkan-pixkan, merkatuaren legeak hala aginduta, zapatagintza utzi eta za-

patak saltzera dedikatu ziren burubelarri. Gaur azken oraindik gehiago aldatu ziren denborarekin. Horrela, urteak aitzinera joan ahala, tabako saltzeko

baimena eskuratu eta bertze produktu batzuk ere saltzen hasi ziren dendan, bainan ez

zioten horregatik zapatak saltzeari utzi. Jatorriko gremioan segitzen dute, beraz. Gaur egun Carlos Ostiz da dendako nagusia, Ostiztarren 4. belaunaldiko kidea.

### Elizondon, Mena argazkidenda

Salto bat eginez 1860. urtera itzuli behar dugu Mena argazkidendaren jatorria ezagutzeko. Urte hartan Felix Menak ikasketak akitu eta argazki denda jarri zuen Madrilen. Handik Valladolid aldera joan zen, eta gero Iruñean paratu zuen estudio bat. Baina ez zen geldirik egotekoa, nonbait, eta hondarrerako Elizondon harrapatu zuen gustoko tokia. Bertan 1898. urte aldera ireki zuen denda. Be-

### Vitorio bere aitaren

### bidea segitu zuen

### bezalaxe, honen seme

### Felixek ere laster ikasi

### zuen aitaren lanbidea,

### 13 urte bertzerik

### ez zituela soldaduei

### argazkiak atera eta

### saltzen baitzizkien

### dagoeneko.

re semeak, Vitorio Menak, aitaren ofizioa ikasi eta etxebat erosi zuen estudioa jartzeko. Hori da guk gaur egun ezagutzen dugun Mena argazkidenda. Vitorio bere aitaren bidea

segitu zuen bezalaxe, honen seme Felixek ere laster ikasi zuen aitaren lanbidea. 13 urterekin soldaduei argazkiak atera eta saltzen zizkien dagoeneko.

Denborarekin bere bizkar hartu zuen argazkidenda, eta Donezteben ere bertze estudio bat ireki zuten Menatarrek. Gaur egun, Felix erretiratze-ko puntu dagoen honetan, ez du tradizioa galtzeko bate-re beldurrik, bere seme-alabak argazkigintza ongi ikasia baitaude dagoeneko. ■

### Garai batean Ostiz

### zapata-dendan mendiko

### botak egiten ziren batez

### ere. Eskualde guzian aski

### ezagunak bihurtu ziren

### Ostiz etxeko "bortzegiak".

### Mugaz bertze aldetik ere

### hainbat erosle etortzen

### zen zapata famatuak

### erostera.

☞ **Carlos OSTIZ** Doneztebeko Ostiz etxea

## «Gerra zibila baino lehen 8 langile izatera ailegatu zen zapata-denda»



**Badakizue ze urtetan ireki zen Ostiz denda?**

Segurutzek ez dakigu noiz ireki zen, baina uste dugu 1870 aldera izan zen zela. Badakigu gure birraitona zenak ireki zuela. Bera zapataria zen Iruñean, eta nola ez dakigun arren, Donezteben bukatu zuen egun batean. Bera eta emaztea hasi ziren zapatagintzan, eta poliki-poliki

denda aldatzen joan zen, zapata gehiago egiten, gehiago saltzen...

**Gero zure atautxi zenak hartu zuen denda...**

Bai, Anastasiorekin bere momenturik hoberenak bizi izan zituen Ostiz dendak. Gerra zibilaren aitzineko urteetan 8 langile izatera iritsi zen, eta eskualde guzira egiten zituen zapatak.

**Bortzegi izeneko bota haiek izen haundia hartu omen zuten garai batean.**

Bai. Aski ezagunak egin ziren bortzegiak. Zolan iltzeak jartzen zitzaizkien eta ibiltzerakoan soinua egiten zuten. Garai haietan hemen inguruan zebiltzan frantses eta alemanak etortzen ziren bota hauek erostera.

☞ **Felix MENA** Elizondoko Mena argazkidenda

## «Erretiratzen naizenean argazki zaharren erakusketa bat prestatu nahi dut»



**Kontatu labur-labur Mena argazki dendaren historia.**

Nere aitetik ireki zuen 1898an. Gero bere semeak, Vitorio hartu zuen. 1941ean hil zen nere aita Vitorio, eta gero nere amak hartu zuen. Ni 13 urterekin hasi nintzen argazkiak ateratzen. Soldaduen kanpamentura joaten nintzen erretratuak ateritzera, eta biharamunean saltzera joaten

nintzen. Geroztik ofizioa ikasi eta hemen espostu nintzen. **Familiako tradizioa galtzeko beldurrik ez duzu gainera, ezta?**

Ez, ez, nere seme-alabek segitzen dute, batek Donezteben eta bertzea hemen Elizondon. Bertze alaba bat disainatzailea da.

**Etxean dituzun argazki eta kamara zahar hoiekin erakusketa bat egitea pentsatu duzu nozbait?**

Behin baino gehiagootan, baina denborarik ez izaki eta gibelerat utzi dut. Ekainaren 15ean jubilatuko naiz, eta orduan nahi dut hasi zerbait prestatzen. Nere asmoa argazki polit batzuk aukeratu eta Arizkunenean edo hemen nonbait jartzea da.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

## Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

## Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

## e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arozena.

**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

**Berriemaileak:** Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fernandez,

Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor, Margari Etxenike,

Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri,

Frederick Berruet, Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena,

Pello Apezetxea, Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea, Belarra...

**Inprimategia:** Gertu.

**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitzua,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortziritako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

## Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria . . . .2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria . . . .160 Libera

Europa . . . . .4.000 Pta.

Amerika . . . . .16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Egoera jasanezina

Gure ingurunea, Arantzako Unanu aldeko lurrak, begiztatu bezain pronto edonorohartu ahal da egoera desatsegina nahiz errukarria dela.

Honen zergatia sinplea da. Izan ere, lurhoietan zuhaitz berriak jartzeko asmoa dago, baina lehendik dauden ametzak kendu gabe ordea. Ondorioz garbi ikusi ahal dugu zuhaitz berrien etorkizuna oso iluna dela, zuhaitz haundi baten itzalpean geratuko bailirateke. Hau jakinik ondorio garbi batera iristen gara; Arantzako Udalak nahiz Nafarroako Gobernuak ekintza honetan alferrikako emaitzak lortuko dituztela. Baina, ahal ere, ondorio tristena Arantzako herriak jasango du, inoiz ez baitu aurretik eginiko inbertsioen emaitza onik lortuko. Hemen dena galdua dago, baina espero dugu, hurrengo baterako, bi aldizpentsatu eta denontzat onuragarria den erabaki zuhurra hartuko dela.

J.M.

(ARANTZA)



### Martin Jaunsaras iruritarra joan zauku

Aspaldiko urtetan nork ez zuen ezagutzen Martin Jaunsaras edo "Martin Garzipot" xerrikume erolea. Baztango herri gehienkoeetan ibiltzen baitzen azken baserri urru-netaraino helduz. Zenbait itzuli bazuen emanik hemengo xokoetan segurubere gustuko ofizioan.

Orai zenbait urte hontan berebilez ibiltzen zena bainan denbora batean zer bideak egin ote ditu Garzipotek oinez baserri baserri ibiltzen zelarik ardu-renian argia hasi baino aise goizago etxetik ateraz urruneko etxalde zenbaitetaraitz helteko tenorian. Orduan ere egunak orai-ko oren berak baitzuten halabainan. Heltzen zen lekuan ardura bere umore ona erakusten zuen bere nekaduraren gainetik, berdin tritzo batzuten zituela bere ingurua zuen konpanari instant bat goxoa pasarazteko irri zenbait ekarriaz ezpainetarat. Gaizoa Garzipot bere lan eta harat hunat guien artetik bizi alegera bat eramaiten zuen, gustu zuen jenden konpanan. Adixkideak biziki maite zituen.

Adixkideak maite zituen bezala bere familiari ere biziki atxikia zen. Zernahi eginen zuen bere familia


### OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

ongi ikusteko. Ez da estonatzeko Garzipotenean ardura haurrez bete baiditzen, ordian zuen bere gostua Martinek, jende gehiagorekin eta hura urosago. Zer familiako gizona! Azken denbora hontan bere eritasunak ahultzen ari zuela ikustearekin bere semeatxi eta albatxiak biziki hurranik segitu zaizkio. Aitaxiren hondar egunak ez-tixago izan ziten jasaiteko. Bere nahigabe guzien artetik berak hainbertze maite zituenek inguratutik egoiteko zoriona ere ezagutu du.

Ehorzketa biziki ederra-eginak izan da. Iruritako eliza bete-betea zen jendez. Denak arras kartsuki eta debozionearekin meza eder bat emana izan da. Hoinbertze lagunek erakutsi dakote beren atxikimendua, berari azken agur baten egierat etorri-erespetuarekin. Gelditzen den familiak onar ditzala gure doluminak. Nere azken hitza: Iku arte adixkidea Ona zinduen omorea Zurekin iragan denbora Ez daike ahantz nehola! Zure izena aipatzean orroimen gozo bat heldu zait gogora. Jainkoak sarista zaitzala.

ADIXKIDE BAT



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

## Aurrematrikulazio kanpaina otsailaren 21ean zabalduko da

Derrigorrezko Hezkuntzan aitzindu egin da epea, eta Batxilergo eta Lanbide Heziketan gibeleratu



Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasi behar duten neska-mutikoen aurrematrikulazio epea otsailaren 21etik martxoaren 7ra zabalduko da. Bertze ikasturteekin konparatuz, ia hilabete bat aitzindu da aurrematrikula epea. Batxilergoan eta Lanbide Heziketan izena emateko epea, aldiz, maiatz bitarte gibeleratu da. Zehazki, aurren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza akitzen duten ikasleek maiatzaren 2tik 12ra izena eman behar dute aukeratutako adarrean.

Aldaketa hauekin, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamenduak aitzindu egin nahi du gehienek egiten duten aurreinskripzioa, hau da, hiru urteko haurrena. «*Hiru urteko haurren gurasoei berdin zaie izena hilabete lehenago edo beranduago ematea*». Administrazioarentzat aldiz, prozesua aunitz azkartzen da: «*Ikasle guttiago izanagatik, Batxilergo eta Lanbide Heziketako aurrematrikulazioa baino zailagoa da haurrena*» diote Hezkuntza Departamendutik. Bertze urteetan, gainera, kritikak izan dira Aste Santua aurrematrikulazio kanpainaren tartean izaten zelako. DBHak autu duten ikasleek, berriz, denbora gehiago izanen dute zein ikasketekin segitzen duten erabakitzeko.



U L KUTX K L GUN UK IZU . . C. EGITEN



# Bartzelonako Raeo taldearen kontzertua otsailaren 19an

Kultur Etxean joko dute, Azkoitiko El Corsal Desastre bakarlariarekin batera

## ASIER GOGORTZA

Norabide eta forma berriak lantzen dituzten bi musika talde aditu ahal izanen dira heldu den astean Kultur Etxeko gela haundian. Batek, Kataluniako hiriburutik heldu den Raeo taldea ariko da. Musika eta irudiak nahasten dituen multimedia ikuskizuna emanen dute hauek, The

Body Tapes izenekoa. Hein haundi batean inprobisazioan oinarritzen dute euren musika, tronpeta eta bajoaren doinuek euren atzeko pantailan agertzen diren irudiekin bat egiten baitute.

## RAEO: HISTORIA PIXAR BAT

Raeo 1991. urtean sortu zen Bartzelonan, Mark Cunningham eta

GATEk elkar ezagutzen dutenean. Cunningham New York hiriko No Wave mugimenduaren aitzindarietako bat izan du zen 70 eta 80. hamarkadetan. GAT, berriaz, Bartzelonako Movida eszenako hainbat taldetan ibilia zen Raeo proiektuarekin hasi aitzinetik.

Bertzalde, ezin aipamenik gabe utzi kon-



## Urtarrilaren 27ko greba

Herriko fabrika eta komertzio gehienek lan egin bazuten ere, langile eta ikasle talde haundi batek konzentrazioa eta manifestazioa egin zuen herrian presoek eskubideak errespetatu daitezken eskatuz.

tzertua irekiko duen bakarlarria. El Corsal Desastrek poesia garratza eta gitarraren oihuak tartekatzen ditu bere emandietan. Malagan sortua izan arren, Azkoitia-ko Akauzazte taldearekin jotzen hasi zenetik Azkoitian bizi da Carlos Desastre.

## UDABERRIKO JAIALDIAREN AURRERAPENA

Berako rock taldeek antolatu dute kontzertu berezi hau, eta udaberriaren eginen den jaialdia-  
ren aurrerapen tiki bat izanen dela aipatu dute. Kultur Etxean sartzeko prezioa 800 pezetakoa izanen da. Gustatu edo ez, tronpatzeko beldurrik gabe erraten ahal da kontzertuak ez duela ikusle bakar bat ere epel utziko.


## Partsonaia

### Donostia Hiria literatur sariaren irabazle

Mikel Tabernari eman diote Donostia Hiria lehiaketan ipuingintzako lehen saria, "Errege eguneko panpina" lanagatik. Eguneroko ogia irabazteko errekan arrantzatzen duen ijito gazte baten ibilerak kontatzen dira ipuin horretan. Iaz Tene Mujika saria eskuratu zuen Tabernak.



Mikel TABERNA



Musika eta irudiak nahasten ditu Raeo taldeak.

© 948 631 462  
Altzate 1 • BERA  
**Xirekil**  
Beltz 1991

© 948631076 • BERA

**OKANE**  
**HARATEGIA • URDAITEGIA**  
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

**ERROTAZAR**  
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA  
**ZELAIA Harategia**  
Agerra Auzoan

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
Altzate 17  
BERA  
© 948 630 763



**LESACA**

# Errota berezi batekin egiten du arto-irina Uharteko Manuel Aranburuk

Lesakako ferietan, Berako Lurraren Egunean eta Ahetzen erakutsi du tresna

AITOR AROZENA

Uharteko errota be-tidanik ezagutukatu da Lesakan. Manuel Aranburuk dioenez, «*bortzehun bat urte igual izanen ditu. Ni gaztea nintzenean, Ameriketara joan baino lehen, oraindik lanean ari zen errota*». Gero, pixkanaka galtzen joan zen, hondatzen, eta azkenean bazterrean utzi zen errota. «*Modernidadeak ekarri zuen hori, fabrikak hasi ziren eta arto-iririk ez zen saltzen. Gaurko egunean erosten duenak ere, kapritxo erosten du, ez du horren beharrik*». Halere, errota nolabait piztearen pentsatu zuen Manuel Aranburuk. Honela lehengo errota-ko harriak hartu eta argindarrarekin mugituko zen errota elektrikoa egitea gogoratu zitzaion. «*Ez nuen inon ikusia, baina banuen ideia bat eta Beñardo Lantxeri komentatu nion eta bien artean egin genuen*». Geroztikan, etxean egunero artoa ehotzeaz gain, herriko ferietan,



Garai bateko harriarekin egindako errota lanean, eta ondoan, Uharteko Manuel Aranburuk.

Berako Lurraren Egunean eta Ahetzeko ferian erakutsi du tramankulua. Jendeak harri-duraz eta interesarekin begiratzen du erro-taren lana. Manuelek dioenez, adineko jendearen artean guztiz kontrako iritziak bildu ditu: «*Batzuk lan hauek berreskuratzea ederki dagoela erraten didate, bertenaz errotak galduko direla. Bertzek, aldiz, 'kentzak hori*

*begi bistatik, lehen ere arto-irina egunero jan-nak gaituk!' erraten dute*». Erosle gehienak etxera joaten omen zaizkio, Igantzi eta Arantza aldetik gehienbat. Arto-iririk kilo hogeita hamar durotan saltzen du. Gaur egun kapritxo dela onartzen duen arren «*gure etxean, arratsero taloa gazta eta esnearekin jaten dugu, gustora aski*» dio Manuelek.

**flash**

- ❖ **Patxi Arrastua** ehiztari lesakarrak ezin izan du iaz Espainiako oilagor ehizi txapelketan lortutako garaipena berretsi. Bosgarrena izan zen finalean. Hori bai, Ehizi praktikoko txapelketan bigarrena izan da.
- ❖ **Santa Ageda** bezperan ikastolako neska-mutikoak eskean ibili ziren, azken urteotan bezala. Egunean, berriz, preso eta errefuxiatuen alde ibili ziren santa eskean.

## Xabier Silveira, Manolo Arozena eta Saioa Mitxelena txapel-dun

Xabier Silveira, Manolo Arozena eta Saioa Mitxelena beratarrak osatutako hirukoteak irabazi du Bortzirietako bertso eskolak bigarren urtean antolatutako txapelketa. Urtarrilaren 28an Arrano elkartearen egindako finalean, Estitxu Arozena, Xabier Terreros eta Alaitz Rekondo hartu zituzten mendean. Antolatzaileak gustora azaldu dira, izan ere, Bortzirietako eskolako 15 bertsolari aritu dira txapelketan eta eskola bereko bertze gazte gatzuk gai-jartzaile lanak egin dituzte. Finalaren aitzinetik egindako afarian 60 bat lagun bildu ziren Arranon.

**Pinturak eta barnizak**

**LESACA**

☎ 689 042 671  
☎ 948 637556

Manuel Zamorano

**BITTIRIA HARATEGIA**

☎ 948 627555

Bittiria, 43 • LESACA

**XATURBETXEA**

**JATETXEA**

Tfnoa: 948637027 LESACA

**KATTU**

ostatu - jatetxea

Plater konbinatuak eta menuak

☎ 948627573 • LESACA

**ANA janaridenda**

Bittiria, 41 • ☎ 948637518

LESACA

**Lurrindenda**

Marian Mendiberrri

**Estetika**

Behoko Plaza 8 ☎ 948637791 • LESACA

**IRU BIDE**

**ERRETEGIA**

Tfnoa: 948 637 127

LESACA

**KOXXILA OSTATUA**

Zarandia, 4 - LESACA

**ETXALAR**

# Mendiko bideen Ordenantzak onetsi ditu Udalak

Mendiari zor zaion errespetua eta herritarren komunikazioa zaintzea du helburu

**PELLO APEZETXEA**

Ordenantzak, lehen-bizi, mendietako bideak bereixi eta sailkatzen ditu: 1. Bi metro edo gehiagoko zabalduria duten bideak. Hauen artean, auzoetako bideak, baserrietako sarbideak eta baserri arteko loturak, alde batetik; bertze aldetik, mendi alde haundietara nahiz inguruko herrietara ailegatzeko erabiltzen diren pista nagusiak, oihan berri eta belatietaratzeko erabiltzen diren bigarren mailako pista, eta egurra ateratzeko adarrak. 2. Orga edo ka-

rra eta oinezko bideak. Hondarreko hauetan, nekazaritzari, abeltzaintzari edo oihan-gintzari lotutako lanetarako soilik ibiltzen ahal izanen dira ibilgailu motordunak. Bertzenaz, Udalaren baimen berezia beharko dute. Lehen-biziko puntuan aipatutako bideetan, berriz, hau da, bi metro edo gehiagoko auzo eta baserrietako bide nahiz pista nagusietan, ibiltzen ahaliko dira motozikletak eta ardatz bakoitzeko 3,5 tona baino pisu tikiago duten ibilgailuak. Pisu haundia-gokoak ere bai, baina



**Larraburuko mus eta partxis txapelketako irabazleak**

Argazkian ageri dira, bai partxis txapelketan eta bai mus txapelketan sari-tutako bikoteak. Museko lehen saria Domekeneko Anttoniok eta Jauregiberriko Kandidok eraman dute. Partxiseko lehen saridunak, berriz, Domekeneko Pakita eta Lekuaringo Kandida ditugu.

baserriko bizimoduari lotuak badaude. Debekuda pistetatik kanpora mendian barna ibilgailu motordunetan ibiltzea.

**Haizeteak mendietan egindako kalteak**

Abenduaren 27 eta 28ko haize-boladak us-te baino kalte haundia-goak eragin zituen mendietan. Lizarrietan 574 arbola bota zituen, Gere-

zibeltzeta eta Ezkutu aldean, berriz, 1.253, insignis pinuak denak. Arbola horien balioa, 9 milioitan baloratu du Udalak. Ikusi beharko erosleek ze eskeintzak egiten dituzten, zeren eta, haizearen ondorioak aunitz lekutan izan direnez, prezioak beheitiko joera baitu. Aipatutakoaz gain, Etxalarko bertze toki batzuetan ere erori dira arbolak, kopuru tikiagoan.

**flash**

**Biztanleen adina**

Bortz urtetik bortz urtera sailkatuz, jende gehiena 50-54ko bortz urtekoan dago: 73. Ohargarria da bertze hau, Otik 10rakoak baino gehiago dira 80tik 89rakoak: 52 lehenengoak eta 54 bigarrenak. Zazpik 90 urte beteak dituzte, eta euretako bat, Iñaxi, 100garren urtean sartu da.

**Hirigintza Plana**

Udalak onetsia zuen Hirigintza Plan berria, Nafarroako Gobernuak ere onartu du.

**HERRIKO OSTATUA**  
**Jatetxea**  
 © 948635290 **ETXALAR**

**«USOA»**  
 NEKAZARI KOOPERATIBA  
 Ganaduarentzat pentsurik egokiena  
 Tfnoa: 948635214  
**ETXALAR**

**Lanchas**  
 • Parketak - Tarimak  
 • Kutxillatzea eta bernizatzeak  
 • Estaldura orokorrak  
 Bera © 948630735

**KAYULA**  
 - Sukaldeko tresnak  
 - Opariak  
 - Pinturak  
 Albistur, 51 LESAKA  
 © 948 63 75 58

**HARITZPE**  
 948635235  
 948635038  
**GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK**  
 Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

**LEGARRA**  
 Legarra, 9 • © 948 637 030 • LESAKA  
**IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU**  
 • Liburuak  
 • Papertegia  
 • Tabakoa  
 • Plastifikazioak egiten ditugu  
 • FAX publikoa  
 • Enkuadernatzeak  
 • Inprenta lanak  
 Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

**IGANTZI**

# Heldu den larunbatean izanen da Biltoki elkarteko batzarra

Otsailaren 17an izanen da, berriz, hauren zuhaitz landaketa

**OSKAR TXOPERENA**

Jakina denez, otsail aldera izaten du urtero Igantziko Biltoki Elkar-teak urteroko bilera nagusia. Aurtengoa heldu den larunbatean izanen da, otsailaren 12an, arratsaldeko 8,30etan. Gaiak ere ohikoak izanen dira: 1999ko kontuen eta ekintzen berri ematea, bazkideen alta eta bajak, eskaera eta galderak, eta azkenik, aldatu beharreko junta-ko kideen aukeraketa. Hauexek dira bi urte bete ondotik juntatik aterako direnak: Itziar Iguzkiagirre (lehendakaria), Juankar Unanua, Amalia Sein, Korpus Etxeberria, Roberto Txoperena, M<sup>a</sup> Paz Petrikorena eta Angel M<sup>a</sup> Irigoien.

**Zuhaitz landaketa**  
Ohitura bihurtzen ari



Zuhaitzak landatu ondotik, indarberritzeko ordua ailegatzan zaie haurrei. Horretan ari dira iazko argazkian ageri direnak. Argazkia: Oskar

zaiguna ere eskolako haurrek mendian egiten duten zuhaitz landaketa da. Momentuan zein egunetan egiten den bertzerik ez dakigu, otsailaren 17ko bazkailondoan. Aintzineko bi urtetan Juanjerinborda

inguruan egin baldin bada ere, aurtengoa non egiten den erabakitze-ko dago. Orain arte bezalaxe, nahitanahiezkoa da lan honetan guraso-ek haurrekin parte hartzea, paratzen diren landaren haundi samarrak

izaten baitira, zulo haundia eskatzen dutenak.

**Iñauteak**

Aintzineko urtetako ohitura eta egutegiari begiratu gero, otsailaren 25 eta 26an izan behar lukete aurtengo

iñauteak. Ez da oraindik mugimendu haundirik sumatzen, baina pentsatzekoa da aurtener zerbait plantatuko dela. Irrikitan gaude larunbat arratsean meza ondotik betiko taldeak zer prestatu ote digun ikusteko, iazko frontoiaren inaugurazioa mundiala izan baitzen. Nahiko lan izanen dute orain artekoa hobetzen. Animo!

**Udal administraria**

Miren Elizalderena izanen da hurrengo urte erdian, gutti goiti beheiti, udal bulegoan arrautuko dugun aurpegi berria. Berak ateratu zuten puntu gehien egindako probetan, eta ondorioz, berari dagokio aipatutako denboraldian lanpostua betetzea. Bigarren Maite Zelaieta gelditu zen, dezima bakar batera!!!

**Ostargi Optika**

**OPTIKO OPTOMETRISTA**

- Lentillak
- Ikusmen azterketa orokorrak
- Begietako tentsioaren kontrola
- Haurrei errebisioa egiten zaie

**Eta behar izanez gero...  
ERA GUZTIETAKO  
BETAURREKOAK  
DITUGU ZURETZAT**

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 63 07 53

**CONSTRUCCIONES METALICAS BERRAZKUN S.L.**

ikinaria eraikuntza  
aldaketak eta despiezea  
intenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadoreak

Igantzioko Bentak • ☎ 948627572 • Faxes: 948637313

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

**ATM S.A.**

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzioko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxes: 948 637 313

**LEBACA**

**ARANTZA**

# N-121 errepideko puntu beltzak moldatzea eskatu du Herriko Etxeak

A-15 autopista debalde izatea eskatu zaio Nafarroako Gobernuari

ELIXABET ETA GARBIÑE

Olorizko Udalaren mozioarekin bat egin du Arantzako Udalak. Honela, A-15 autopistaren berehalako libe-razioa eskatu zaio Nafarroako Gobernuari, gero urratsez urrats autobia bihurtzeko. N-121 errepideko puntu beltzei irtenbidea ematea ere eskatu da. Azkenik, herri afektatuen batzordeak eginen dituen jarduera guzietatik atxiki-mendua adierazi zaie.

**Mendiko lanak**

Unanue mendiko oihanberritze lanak aintzinduak daude. Hasi-rako proiektutik aldaketa batzuk egin dira: zerrakura gehiago egin dira eta itxitako dermioa gortikiagoa gelditu da. Bertzalde, Apittako pista (Zerradoko bordatik Iaszelaietaraino) arron-



Hainbat lan eginen dira Arantzako mendietan.

Artxibokoa

tean moldatu behar dute. Honen aurrekontua 7.018.457 pezetakoa da eta gastu guziaz Nafarroako Gobernuak Ingu-rugiro Departamenduak ordainduko du. Marti-nioneko errekan (Putzu Beltza ondoan) zubi berria egin behar dute. Bi milioi terdi pezeta gos-tako da eta 1.222.980 pezetako dirulaguntza jasoko da. Ametxokon berriez, 900 metroko pis-

ta berria zabalduko du-te, nahiz eta lanak orain-dik ez diren hasi. Azken bi lanok Oartzungo Eli-zegi enpresak eginen di-tu.

**Medikuaren etxeko lanak**

Dagoeneko errepa-ratu izanen duzue medikuaren etxean lan bat-zuk egin berri direla: leiho eta persiana berriak jarri dira, kontsul-

ta guziko paretak pin-tatu dira eta berogailuari programadore berria jar-ri zaio. Lan hauetan 1.260.000 pezeta gas-tatu dira eta Nafarroako Gobernuak milioi bate-ko dirulaguntza eman du. Aurten ere bertze berrikuntza batzuk egi-teko eskaera eginen du-te, zehazki aitzinaldea pintatzeko, teilatua mol-datzeke eta kanpoan ize-na paratzeko.

**flash**

❖ **699 bizilagun**  
Biztanleen errolda berritu da eta joan den urte bukaeran 699 bizilagun zeuden Arantzán. Iaz haur bakarra sortu zen bitartean, 14 lagun hil ziren.

❖ **Garapen bidean**  
dauden herrialdeetan 2000. urtean proiektuak finantziatzeko 100.000 pezeta eman dizkio Udalak Nafarroako Udala eta kontzejuen Federazioari.

❖ **Dirulaguntza eskariak**  
Langabetuak kontratatzeke dirulaguntza eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuari. Nafarroako Emakumearen Institutuari ere laguntza eskatu zaio eskulan ikastaroa egiteko. 20 lagun aritzen dira.



**PAGOLA**  
**TXISTORRAREN IZENA**  
© 948 630 054  
Altzateko Plaza, 2  
BERA

**ZALAIN**  
Zalain Auzoa  
© 948631106  
BERA

**Boda eta banketeak ematen dira**

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagubozgarbitu nahi baduzu, deitu!  
Gu arduratuko gara horretaz.  
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

**BERA**  
© 948630155  
BERA

**SAROB**  
okindegia

**SANDERS** Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**rtzi UI**  
**E**

Ez... r... z... h... T... F... X... 3 15 21

**EKAITZA** kafetegia  
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA  
Lagunekin elkartzeko toki egokia

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

Ortziraletan, 10etan  
Mus Txapelketak

**E E K L E**  
**st tu**

Tfnoa: 948630259 - BERA

**SUNBILLA**

# Hamazazpi orga karrikaratu ziren iñautetako igandean

Jende aunitz hurbildu zen ikuskizunaz goatzera

JAIONE ETA ALBA

Azken hamazazpi urteotan bezalaxe, aurten ere akabaila bikaina eman zaie Sunbillako iñauteriei, igandean egindako karrozen desfilearekin, alegia. Azken urteotan pilatu duen famari erantzunez, jende aunitz ~5.000 bat lagun-hurbildu zen herrira eta hauek gustora uzteko, sunbildarrek egindako lanak ikusi zituzten. Eta ez nolanhiko lanak gainera! Guzira hamazazpi karroza atera ziren, zein baino zein ederra-goak: Gangsterren auto ederra, Simpson familia, gure gazte denborako hippiak, Zintzur bustien tribu indiarretik fuertea babesten zuten Zalditeriko soldaduak, Tourreko etapa menditsuan maldan goiti zoaien txirringulari tortpela, salda eta torti-

Ila pintxoak banatzen zutenak... eta bertze horrenbertze karroza.

Giro polita izan zen igandean, bai, baina Sunbillako iñauteriak ortziraletan hasi ziren, gazteek baserriz baserrira egindako puska bil-tzearekin. Emakumeek Ulibeltzak elkartean ~Mexikoko taldea eta guzi- eta gazteek Elortxur in afaldu ondotik, gaueko besta giroak segida izan zuen herrian. Larunbatean ere eskean ibili ziren gazteak eta han-hemenka egin zituzten otorduen ondotik, Fondan Duikabe musika taldearen jendaurreko debuta ikusi eta aditu ahal izan zen.

Iñauteak akitzeko, Ulibeltzak elkartean bazkaria izan zen. Bazkalondoa eta iñautetako azken orduak alaitzen Jalisko Band taldea aritu zen.



Indioen erasoaren kontra «Septimo de Caballeria»-k zaintzen zuten polborina eta Frantziako Tourreko etapa gogorra egiten zuten txirringulariek erakarri zuten jendearen arreta. Bertze karroza ikusgarriak ere izan zen Sunbillan.

**MARIGORRA**  
LENTZERIA

**MERKEALDIAK**  
% 50a bitarteko deskontuak

Parrokia 11  
Tfnoa: 45 01 12  
DONEZTEBE

**Iborra Martzaria**  
Martxako ordea  
0-24 ordu  
Pasaia kalea 6 - Iborra  
48944

**BEINTZAko OSTATUA**

© 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN

**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
948 451 541  
Faxa: 948 450 334  
DONEZTEBE

**PIKABEA**  
Molinero drogerian galdetu *pinturak*

**Etxe barneko hezetan eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lzpaz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

**MALERREKA**

# Azpiegitura lanak egiteko dirulaguntza izanen da aurten

Doneztebeko Udalak, adibidez, 40 milioi pezeta jasoko du

TTIPI-TTAPA


Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamenduak herrietako azpiegitura lanetan egin beharreko lanen proiektuak diruz lagunduko ditu. Proiektu hauek 1997-99 Hirurteko Planetik kanpo gelditu ziren. Hurrengo Hirurteko Plana, berriz, 2001. urtean jarriko da martxan eta bitartean, 2000. urtean lan batzuk egiteko banatu ditu dirulaguntzak.

Doneztebeko ur-hornidura eta saneamendu sarea berritzeko 25'4 milioi pezeta inbertsioa egingen da. Behe-tentsioko argindar sa-

rea berritzeko 7'8 milioi pezeta dirulaguntza emanen da eta argiteria berritzeko 6'9 milioi. Zolaberritze lanetan, azkenik, 31'8 milioi inbertsioa egingen da Donezteben.

Beintza-Labaiengo kanposantua handitze-ko 6'6 milioi pezeta dirulaguntza ailegatu-ko da. Oitz eta Saldiasen ere argiak berritzeko asmoa dute. 7'9 eta 4'2 milioi pezeta jasoko dituzte.

Bideak moldatzeko, azkenik, Sunbillan 12'3 milioi pezeta jasoko dituzte eta Legasan, Gazteluko bidea moldatzeko 4'2 milioi pe-



## Patxi Aldabe doneztebarra garaile bigarren aldiz Zubietako dardo txapelketan

Zubietako Herriko Ostuak bigarren aldiz antolatutako dardo txapelketa irabazi du Doneztebeko Patxi Aldabek. Gisa honetara, jokaturako bi txapelketa irabazi ditu Patxi. Aurtengo finala gogorra izan zen, Egoitz Esarte irabazteko puntuan izan baitzen. Hirugarren postua Hilario Mutuberriak eskuratu zuen eta laugarrena Xabier Bendoirok. Lau lagun hauek osatuko dute Hernaniko Jausikan jokatu den Euskal Herriko txapelketarako Malerrekako A taldea. Bosgarrenetik zortzigarren postura sailkatutakoek, berriz, B taldea osatuko dute.

Argazkia: Zarbo

## Nafarroako Haur Kantari txapelketako saio bat Donezteben burutuko da apirilaren 1ean

Euskal Kantuzaleen Elkarteak eta Nafarroako Gobernuko Euskara Zerbitzuak antolatzen duten Nafarroako Haur Kantari Txapelketa berrituko da aurten. Bi mailatan bana-

tuko dira aurten parte-hartzaileak: txikiak, 1989tik 1993ra sortutakoak eta gaztetxoak, 1985tik 1988ra sortuak. Izen ematea martxoaren 10a baino lehen egin behar da, 948 228232

fax zenbakian. Urte batzuetan Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan egin da finala. Aurten, finala Iruñeko Gaiarre antzokian izanen da apirilaren 16an, goizeko 11etatik aitzinera. Halere, kanporaketa saio bat egingen da Bordatxon, apirilaren 1ean, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera. Bertze kanporaketak Zangotzan eta Berriozarren egingen dira.

**MENGHNI**  
AKORDEOI eta TRIKITIXA  
Domifenea-San Andres • NARBARTE • © 943 615055

**TRIKITIXA eta AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA**

Angel Manuel Belio

## ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

# Bakailuak

Inportazioko bakailua

Kalitate onena • Faroe irletakoa

• **BAKAILY GEZATYA BERE PYNTVAN**

Enkarguak hartzen dira

San Juan Plaza, autobus geltokian • Tel: 943 627131 • IRUN

## CONSTRUCCIONES SALDIAS ETXEGINTZA OROKORRA

Teilatu eta fatxada berritzetan espezializatuak

Pintura lanak eta gremio guziak

• 607 434397 • 619 058264 • LEGASA NAFARROA GUZIAN ARITZEN GARA

ITUREN - ZUBIETA

# Joaldunen joan-etorriek girotu dituzte iñauteriak bertze urte batez

Inoiz baino mozorro gehiago ibili dira

TTIPI-TTAPA

Urteroko ohitura bezela, Ituren, Aurtitz eta Zubietako joaldunek beraien joan-etorriak egin zituzten iñauterietako astelehen eta asteartean. Horretaz gain, inoiz baino mozorro gehiago ikusi ziren.

Astelehenean Zubietatik abiatu ziren joaldunak eta Aurtizko joaldunekin gosaldunak ondotik Iturenera jautsi ziren. Iturengo joaldunak Lasagako zubira atera ziren bertze taldeetako joaldunen bila. Gero, hiru taldeek elkarrekin ibilaldia egin zuten Iturenen. Gero talde bakoitzeko kideek norbera txokoan bazkaldu zuten.

Asteartean, bidea alderantziz egin zuten. Iturengo joaldunak herritik abiatu eta, Aurtizkoak bildu ondotik,



Zubietara joan ziren, bertako joaldunekin elkartzeko.

Espero bezala, jendez gainezka egon ziren bi herriak. joaldunen ibiliak ikustez gain, mozorroek presatzen dutena jakiteko ikusmin haundia izaten da. Aurten ere, ez dute hutsik egin eta beraien zerrikeri eta basakeriekin, Zubietara joandako bisitarien arreta bezederen piztu dute.



Iturengo joaldunak eta Zubietako mozorroak, iñauteriak bizitzeko bi modu.

TTIPI-TTAPA TB

## Txitxillo erreken afera karrikaratu zuten zubietarrek

Iñauteriak besta egiteko egun bereziak baldin badira ere, zubietarrek aurtengoan Txitxillo erreken afera plazaratzeko ere aprobetxatu dute. «Txitxillo bizirik» eta «Txitxillo erreka, lapurren altxorra» zioten pankartak ageri ziren plazan eta zubian. Horretaz gain, erreka ur-jauziak eta amoarrainak agertzen zituen karroza ere aterazen, egoera salatuz. Jakina denez, Zubietan dagoen Txitxillo errekatik ura hartu dute, Ituren, Elgorriaga eta Doneztebe hornitzeko. Zubietar askori ez zaie hau gustatu eta beraien arrenkura erakutsi dute iñauterietan. Proiektua herritarrei bizkar emanda egitea izan da zubietarren haserrea piztu duena.

Txitxilloko erreka uraren erabilera Confederación Hidrográfica del Norte enpresaren esku dago.

**ttipi-ttapa internet**  
<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>  
 E-mail: [ttipi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.com)

**ola SAGARDOTEGIA**  
 250 lagun eserita  
 Klimatizatua  
 Sagardotegi menua  
 102 Meaka auzoa  
**20304 IRUN**  
 Tel: 943 623 130

**MARTIKO**  
*Gure baserrietako produktua*  
 © 948 630 700 • Fax 948 631 213  
 Zalain Poligonoa, BERA

## CEDERNA GARALUR Elkarteak GARAPEN AGENTE LANPOSTUA sortzen du AMATASUN BAJA ORDEZKATZEKO

Bere lanaren betebeharrak Eskualdeko inizatibak mugiaraztea eta bere enpresa sortu nahi duten pertsoneri laguntza ematea dira **BORTZIRIAK-MALERREKA-BERTIZARANA** Eskualdean.

### BEHAR DA

- Diplomatura edo lizentziatura bat edukitzea.
- INEMen apuntatuta egotea eta bertan bizitzea.
- Euskaraz ongi hitzegin eta idaztea.
- Gidatzeko Karneta eta kotxea

### BALORATUKO DA

- Enpresa, Ekonomia, Soziologia, Geografia, LADE Ikasketak.
- Lanpostuari dagokion formakuntza osagarria.
- Lanpostuari dagokion lan esperientzia.

Interesaturik dauden pertsonen Lan Enplegu Zerbitzuan apuntatu behar dute (Doneztebeko bulegoan), otsailaren 17a baino lehen.

**LEITZALDEA**

**Cruzcampo Aranoko lantegia Damm taldeari saltzea aztertzen ari da**

Heineken garagardo enpresa Cruzcampok Aranoko duen lantegia Kataluniako Damm taldeari saltzeko asmotan da, urtarrilaren 31ko Cinco Dias ekonomia-egunkarian argitaratu zenez. Heineken Cruzcampo erosteko akordio batera ailegatu da, gero El Aguila-rekin fusionatzeko. Horretarako, ordea, produkzio ahalmenaren %17a uztera behar du Espainiako Gobernuak. Honek zera esan nahi du, Heineken, Cruzcampo eta El Aguila ez diren marka guztiak utzi egin behar litzateke talde berriak fusioa gauzatzeko.

Aranoko 130 lagun ari dira lanean eta 40 milioi litro garagardo produzitzen ditu. Horietatik 30 milioi litro Keler markarekin ateratzen dira merkatura. Cruzcampo, Calsberg eta Oro Lujo markak ere egiten ditu.

Cinco Dias egunkariaren arabera, Damm taldeak Jaen eta Aranoko lantegiak erosteko asmotan litzateke, hau da, fusioa oztopatzen duten lau lantegietatik bi. Aranoko Enpresa Batzordearen ustez, aterabide hau da onenetakoa, «egoeraren onetan Heineken-Cruzcampo taldean gelditzea txarra izanzen baitzen». Halere, informazio eza salatu du eta lantegia erosten duenak langile kopurua ez murriztea espero du: «Lehendik ere justu xamarrean gaude».




Aralar Udala Musika Eskolako Goizuetako ikasleek ikasturte bukaeran emandako kantaldia. Heriz herri egiten dira horrelakoak. Artxibokoa

# Logotipo berria du Leitzaldeko Aralar Udala Musika Eskolak

Leitza, Goizueta, Areso, Arano eta Larraun aldeko ikasleak biltzen ditu

Leitzaldeko eta Larraun aldeko Aralar Udala Musika Eskolak aro berri bati ekin dio jakina da. Antolakuntza aldetik funtzionamendu berritzailea gartzen hasi ziren aspaldi, eta lan horrek, emaitza onak jaso ditu. Azkena eta garrantzitsuenak, Nafarroako Gobernuaren Inspektzio Teknikoaren Zerbitzuak ikasturtearen hasieran eskola honetara igorri zuen txostenaren aldetik heldu da. Hainbat gai jorratzen ziren txosten honetan eta azken emaitzetan horrela zioen: «...azkenik zera azpimarratuko dugu, Nafarroako Gobernuak beti babestu behar duela Eskola honen duen bezalako funtzionamendu pedagogiko serioa eta gaur egungoa, LOGSE-rekin bat datorren estruktura eredupean lan egiten baitu».

Bestalde, aro berri bati ekin diotenez, es-



**Lekunberriko Karlos Baldak diseinatu du Aralar Udala Musika eskolako logotipo berria.**

kolaren aurpegi ofiziala aldatzeko unea ere badela pentsatu dute. Eskola Kontseiluak irudian ageri den logotipo berria onartu du. Karlos Balda Lekunberriko gazteak egindakoa da. Diseinuaren munduan dabil buru-belarri eta logotipoa egiteko eskolari buruzko hainbat datu eta ezaugarri ikasi behar izan ditu. Hauek dira Karlosen hitzak:

«Logotipo hau forma borobil batek banatzen dituen bi irudiz osat-

tua dago. Irudiak bi esku dira eta horiek jendearen elkartasuna irudikatzen dute, forma borobila babestuz. Forma borobila musika da. Borobilak musikaren munduan zentzu asko dauzka (diskak, notak...). Modu berean, logotipo honek adierazten du musikaren inguruan ere ematen dela zonaldeko jendearen topaketa. Eskuak zonaldeko Udaletxeak ere badira, Aralar Udala Musika Eskola eta kul-

tura babesten ari diren Udaletxeak azken finean. Eskolaren izena logotipoaren barnean sartu dut, argi geratzea nahi dut eta musika eskola dela lehen aipatu ditudan helburu horiek betearazten dituena. Alde batetik Aralar Udala dago jarrita eta bestetik Musika Eskola. Erdi erdian Udala eta Musika. Irudi guztiaren armonia indartzeko asmoz, hizkiek ere irudiaren lerro berdina jarraitzen dute».



# ORDOKI

## ALTZARIATK

Estilo ugariko mogleak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

ERAKUSKETA Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26  
SALTOKIA Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637 780

LESAKA



LOGELAK, EGONGELAK, TRESILLOAK,  
KUTXAK, BESAULKIAK...

**A**rmairu enpotratuen  
erakusketa berria  
Bittirian

# BAZTAN IKASTOLA Udal Eskola Publikoa



FOTO MENA



BAZTAN BALLEKO UDALA

## ESKUARAZ BIZI ETA IKASI

Aurreinskripzioa: Otsailaren 21etik martxoaren 7ra

© 948 452448

# Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza DBH

## Lanbide Heziketan eskaintza ZABALA

## Batxilergoetan eskaintza OSOA

**LEKAROZ:** ➤ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

➤ **LOGSE BATXILERGOA I eta II**

- Natur eta Osasun Zientziak / Injinerutza Ibilbidea
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Teknologia

➤ **Erdi Mailako Heziketa Zikloa**

- Iharduera Fisikoak eta Kirol Iharduerak
- Ingurune Naturelean Gidatzea

**ELIZONDO:** ➤ Lanbide Heziketa Egokitua

➤ **Lanbide Sarrerako Programa Berezia**  
Bizitza Heldu eta Aktibora igarotzea

➤ **Lanbide Sarrerako Programak**


- Bulego eta Saltetxe Txikirako Laguntzailea
- Soldadura eta Galdaragintza Laguntzailea

➤ **Erdi Mailako Heziketa Zikloa**

- Kudeaketa Administratiboa
- Mekanizazioa

➤ **Goi Mailako Heziketa Zikloa**

- Administrazioa eta Finantzak



## INSTALAZIOAK

- ◆ **5 Laborategi:** Fisika, Kimika, Biologia, Geologia.
- ◆ **5 Informatika gela:** Multimedia, sarea, Autocad, Internet
- ◆ **3 Marrazketa gela**
- ◆ **2 Teknologia gela**
- ◆ **Gizarte tailerra**
- ◆ **7 Ikusentzuteko gela**
- ◆ **2 Liburutegi:** 20.000 ale
- ◆ **Tailerrak:** soldadura, pneumatika-hidraulika, kontrol numerikoa, fabrikazio mekanikoa, bizikleta,...
- ◆ **Kirol Instalazioak:** kiroldegia, frontoia, 2 gimnasio, atletismo pista, futbol zelaiak, kanpoko pistak, zalditegia,...
- ◆ **Jangela: DBHko** 1. ziklokoentzat.
- ◆ **Garraio Zerbitzua:** Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortziriak.



## I.E.S. LEKAROS ELIZONDO B.H.I.

Bigarren Hezkuntza Institutua



### LEKAROS

Uharte auzoa, z/g  
31795 LEKAROS (Baztan)  
☎ 948 58 18 03  
☎ 948 58 18 36  
✉ Posta Elektronikoa  
ieslekar@pnte.cfnavarra.es

### ELIZONDO

Diputazio Etorbidea, z/g  
31700 ELIZONDO (Baztan)  
☎ 948 58 18 05  
☎ 948 58 18 40  
✉ Posta Elektronikoa  
ieselizo@pnte.cfnavarra.es

### Izen ematea:

- ◆ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:  
2000ko otsailaren 21etik martxoaren 7ra
- ◆ Batxilergoa eta Lanbide Heziketa  
2000ko maiatzaren 2tik 12ra

**OHARRA.** Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte gurekin kontaktuan.

# SAN FRANCISCO JAVIER Ikastetxe Publikoa



cpelizon@pnte.cfnavarra.es

• ELIZONDO •

Matrikulatzeko epea:  
Otsailaren 21etik  
martxoaren 7ra

© eta Faxa: 948 581 808

**ESKOLA PUBLIKOA AURRERANTZ!**

Leitzako

# AMAZABAL

## BIGARREN HEZKUNTZA INSTITUTUA

Telefona: 948 510 915

Faxa: 948 510 916

E-Posta:

tesleitz@pnte.cfnavarra.es

### IKASKETAK

DBH 1go Zikloa

DBH 2. Zikloa

### BATXILERGOAK

- Osasuna eta Zientziak
- Gizarte Zientziak
- Mistoa
- Teknologia 1go urtean

### ZERBITZUAK

Jangela

Erresidentzia

Garraioa

Kanpo ekintzak

**AURRE-MATRIKULA EPEA: OTSAILAK 21 - MARTXOAK 7**

**GOIZUETA-ARANO**

# Trabesiaren lanen hasiera aste batzuk atzeratuko da

Aranon, bestalde, Kontzejua enkantera aterako dute berriz

ESTEBAN AROZENA

Trabesia izenarekin ezagutzen den Madalenatik Zibola bitarteko lanak beste atzerapen bat jasan du, proiektuaren aurrekontua baju xamarra omen baita erakitzaileen ustetan. Beraz, ez du inork ere hartu obra hori. Orain, aurrekontua %10a igotzeko aukera ematen omen du legeak. Gestio honek, trabesbidearen lanak emateko denbora beste aste batzuk luza-tuko du.

## Maldamalkorren 30,5 milioiko bakanketa

30 milioi terditan baloratutako bakantzea edo entresaka aterako du enkante publikora Goizuetako Udalak. Maldamalkor inguruko lote honetan alertzeak, insignis pinuak eta pinu larizioak daude, 5.626 metro kubiko guzira.

## Kontzejua berriz enkantera atera du Aranoko Udalak

Aranoko Udalak Kon-



## Ilbeltzaren 27ko huelgak erantzun zabala

Ia erabateko erantzuna izan zuen Goizuetan ilbeltzaren 27ko huelga deialdiak. Eguerdian plazan burutu zen konzentrazioa argazkian. Bederatzi lagun atxilotu zituzten Cruzcampo enpresaren aurrean kateatzeagatik, hauen artean hiru goizuetar.

Argazkia: Esteban

tzejua aterako du berriz enkantera. Orain dela hilabete batzuk gauza bera egin zenean ez baitzuen inork hartu. Taberna eta etxebizitzaren irteerako prezioa merkeagoa izango da oraingoa, urte osorako 315.000 pezetakoa hain zuzen.

Udalaz ari garenez esan behar da, kontzejalen arteko ardurak banatu zituela korporazioak azken bilkuran. Aipagarriena, Jose Manuel Muñoz izendatu zutela alkate-orde posturako. Euskararen normalizazioruntz jotzeko asmotan dira zi-

negotzi berriak. Horretarako dagoeneko bildu dira Euskara Zerbitzuko teknikariarekin, eta beste neurrien artean, alfabetatze ikastaro bat egin asmotan omen dira, ondoren Herriko Etxearen barne funtzionamendua euskaldundu ahal izateko.

**ARESO**

# Herriko argi-farolak garbitzen eta pintatzen ari dira

Argiak indar gehiago duela nabari da orain

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Herrian jarrita dau den argi-farolak garbitu, pintatu eta berritzen ari dira. Orain, argiak indar gehiago duela nabaritzen da. Farola berriak jartzea ere proiektuan sartua dago.

Bestalde, herriko lanak egiteko Udalak

Enplegu Bulegoari (INEM) peoiak eta ofizialak eskatu dizkio, bi-deak txukuntzeko, parretak egiteko eta berritzeko eta plazaren atze-kaidea garbitzeko, besteak beste. Hiru hilabete-ko bi txandatarako (maiatza, ekaina eta uz-taila eta bestea, abuz-tua, iraila eta urria) es-

katu dizkio langileak INEMeri.

## Edozein obragatik zerga ordainduko da

Hemendik aurrera edozein gisako obra egiteagatik %2ko zerga ordainduko da. Orain arte obra txikiei ez zitzairen horrelako zergarik eskatzen.



## Sariak ekartzeaz oraindik ez dira aspertu sokatira taldeko mutilak.

Argazkia: Aitor

## Sokatira taldea lanean fin

Nafarroako txapelketatik txapel bat ekarri eta gero, herriko sokatira taldea lanean fin ari da Euskal Herriko txapelketan. 680 kiloko txapela ez dute jaz-

terik izanen, dagoeneko Beti Gaztek segurtatua baitu txapel hori, baina gainerako pisu guzietan finaleran ariko dira. Lesakako eta Abadiñoako taldeekin batera faborito nagusiak izanen dira Aresokoak.

# Kanposantuan egindako nitxo berriak saltzeko asmoa du Udalak

Eskariak otsailaren 16a baino lehen egin behar dira

JOSEBA AZPIROZ

Udalak Kanposantu-  
an egin berri dituen ni-  
txoak (32) saltzeko as-  
moa dauka. Nitxo ba-  
koitzaren prezioa  
217.500 pta. da (kosta  
dena). Hauetako bat es-  
kuratzeko, otsailaren  
16aren –heldu den as-  
teazkena– eguerdiko ha-  
mabiak baino lehen udal  
idazkaritzan izena eman  
behar da (lehendik es-  
katua zutenek ez dute  
izena berriz eman be-  
harririk). Zozketa egun  
berekor batetan egi-  
nen da. Ez omen da kon-  
tuan hartuko zerrendan  
lehenago ala berandua-  
go izena eman izatea,  
pertsone bakoitzak ni-  
txo bakarra eskuratu  
ahal izanen du eta lehen-  
dik nitxoak dutenek ezin  
izanen dute zozketa ho-  
netan parte hartu.

## Herri lurretan bazkatzen duten azienden saria

Udalak 1.795.486  
pezeta jasoko ditu aur-  
tengo larre sariekin.  
Herri-lurretan bazka-  
tzen den zaldi edo behi-  
bakoitzeko, 1.540 pe-  
zeta ordaindu behar da  
eta ardi bakoitzeko, 154  
pezeta. Hona hemen  
aurten egindako aitop-  
nen arabera, azienda  
kopurua:

- Zaldiak, denetara 208, horietatik 198 komunaletan ibiltzen direnak.
- Behiak, denetara 1.137, horietatik 309 herri-lurretan ibiltzen direnak eta 828 bidaltzen ez direnak.
- Ardiak, denetara



## UPNko Flora Mitxelenak zinegotzi kargua utzi du

Udalak, ilbeltzan egindako batzarrean, Flora Mitxelena zinegotziak –goiko lerroan, ezkerretik bigarrena– aurkeztutako dimisioa onartu zuen. Ekaineko hauteskundeetan UPNk aurkeztutako zerrendan, Gerardo Caballero, Union Independiente Leitzarra taldetik zortzi urtez zinegotzi izandakoa, da hurrengoa.

Artxibokoa

7.639, horietatik 6.594 komunaletan ibiltzen direnak eta 1.045 ibiltzen ez direnak.

• Ahuntzak, azkenik, denetara 92 dira eta horietatik 45 herri-lurretan ibiltzen dira.

Herri-lur edo komunaletan bazkatzen duten aziendak berriz, larreari dagokionez horrela sailkatu dira:

- Zaldiak, Haritzen 63, Aizanen 72, Urdolan 47 eta gainerantzekoetan 11.
- Behiak, Haritzen 112, Aizanen 38, Urdolan 135 eta gainerakoetan 24.
- Ardiak, Haritzen 2.860, Aizanen 1.209, Urdolan 105 eta gainerakoetan 2.420.
- Herri lurretan bazkatzen diren ahuntz guztiak Haritz, Aizan eta Urdolatik kanpoko larreetan bazkatzen dira.

## Larre berriak eginen dira

Urdolatxiki eta Eguzkizko Muinoa alderdietako eremu batzuk luberri bihurtu behar dituzte, 3 Hektarea Urdolatxikin eta 10 Eguzkizko Muinoan. Horretarako enpresa desberdinei lan hauek burutzeko aurrekontuak eskatu ondoren, Excavaciones Intzulegiri

emanen dizkiote lanak. Esleipen prezioa: Urdolatxiki alderdian 87.000 pta/Ha. eta Eguzkizko Muinoa alderdian 70.000 pta/Ha, BEZ kanpo.

## Karrape Irratia

Esatari eta kudeaketa zerbitzuaren kontratua, Arantxa Iparragirre-ri urte batez luzatzea erabaki zuen Udalak.

## Construcciones GOIKO SL

**LEITZAN. Iñaki PERURENAREN**  
etxe ondoan eraikitzen ari garen lau azkeneko etxeak salgai. Jangelan beheko sua, sukaldea eta bainua montatuak. Garajea, txokoa eta jardina.

Anima zaitetz eta deitu!

☎ 649 476 615 • 948 510 346  
Patxi Arrazola 41, 1. eskuin • LEITZA (NAFARROA)

## flash

### ❖ Cederna-Garalur

elkartearen Leitzar-  
an-Larraun-Ultza-  
ma inguruko garapen  
agente berria Marian  
Zestau leitzarra da.

### ❖ Azpiegitura lanak

Ur-hornidura laneta-  
rako 17'3 milioi pe-  
zetako dirulaguntza  
ailegatuko da aurten  
Nafarroako Gober-  
nutik. Herriko Etxea  
moldatzeko 20'9 mi-  
lio eta Arkiskil au-  
zoko bidea konpon-  
tzeko 17'4 milioi pe-  
zetako inbertsioak  
eginen dira Nafarroa-  
ko Gobernutik.

## Leitzako Zinema

Ostiraletan  
10,30etan  
Larunbatetan  
7,30etan

2000-02-11/12

*La lengua  
de las  
mariposas*

2000-02-18/19

*Buena  
Vista  
Social  
Club*

2000-02-25/26

*Rosetta*

**BAZTAN**

# Suinki Euskaltegia zabalduko du Baztango AEKk otsailaren 18an

Elizondoko Serorenean dago egoitza berria

TTIPI-TTAPA

Baztango Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) Elizondoko Jaime Urrutia karrikanen hamaseigarrenean, Serorenea etxean duen euskaltegi berriaren inaugurazio ekitaldi ofiziala egingen du ortzirailean zortzi, otsailaren 18an. AEKk hogeita bi urtez etxe partikularretan eta ikastolak utzitako lokalean eman ditu klaseak, eta lehen aldiz egoitza propioa izanen du. Suinki izena jarri diote euskaltegi berriari eta arratsaldeko 7etan hasiko den ekitaldian, solasaldia, txalaparta, bertsoak eta kalejira izanen dira. Arratsean, berriz, afaria izanen dute. Afarirako txartelak sal-

gai daude euskaltegiaren berean (948 452471 telefonoa) eta betiko osatuetan.

## Gure zaharren haurtzaroari buruzko erakusketa Arizkunenean

Otsailaren 19tik martxoaren 8ra «Gure aiton-amonen haurtzaroa» erakusketa ikusgai izanen da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. XX. mendeko lau lehenbiziko hamarkadetakoz hezkuntza eta jokatuak erakutsiko ditu batez ere: garai hartako eskolak, jostailuak, marrazkiak, bizimoduak, janzkera... Erakusketa arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara egonen da zabalik.

Bertzalde, otsailaren 17a bitarte udal onda-

reari buruzko erakusketa dago leku berean.

## Azpiegitura lanak egiteko subentzioa eman dute Iruñetik

Nafarroako Gobernuako Toki Administrazio Departamenduak herrietako azpiegitura lanetan egin beharreko lanen proiektuak diruz lagunduko ditu. Proiektu hauek 1997-99 Hirurteko Planetik kanpo gelditu ziren. Hurrengo Hirurteko Plana, berriz, 2001. urtean jarriko da martxan eta bitartean, 2000. urtean lan batzuk egiteko banatu ditu dirulaguntzak.

Baztanen, Berroeta, Arizkun eta Elizondoko ur-hornidura eta saneamendu sareak berritze-ko 134 milioi terdiko inbertsioa egingen da.



## Arriskua Iruritatik Elizondorako bidean

N-121-B errepidean dauden *puntu beltz* ugariei berriz bat gehitu zaie Iruritan. Oraingoan, ordea, ez du bide txarrak edo bihurtune estuak sortzen arriskua, gidariaren abiadura baizik. Herrietatik Elizondorako bidean, baina oraindik herri-gunearen barnean, gehineko abiadura orduko 40 kilometrokoa da. Bizilagunek salatu dutenez, abiadura hori auto aunitzek gaintzen dute, arrisku egoera aunitz sortuz.

Sareak berritzeko lan en ondorioz, zola altxatu egin beharko da herri hauetan. Zola berritze

lanetarako 16.700.000 pezetako dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuak.

**IKUSMENAREN BERRESKURATZEA**

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-katarata

**KONTSULTA ORDUTEGIA**  
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

**GIHARRE ARAZOAK**

- Bixkortzea
- Artrita, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

## MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA

San Marcial, 7-4 IRUN

**ONDORIOETATIK INDARTZEKO**

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

## PATXI mozerroak

- Talde edo banakako mozerroak
  - Egiazko txano mexikarrak
  - Era guzietako konplementoak mozerroetarako
  - 1.500 ptatik aurrerako ofertak alokairuetan
  - Talla bereziak
  - 0 hilabetetik aurrerako mozerroak
- ZURE ZAIN GAUDE!**
- Larraotxa k. 2 • OLAZTI  
© 948 468718 • 619 851116

**ARGIBEL OPTIKA**

© 948 581 391  
Santiago 62 - ELIZONDO

**Aukera zabalak**

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

**JATETXEA**  
© 948 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

**MENDI OSTATUA**  
Santiago 25 - © 948 580313  
ELIZONDO

**IPINGI** ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**MERKEALDIAK ERNE!**

Denboraldiko arropak merke-merke

**ÑAUTERIEKAKO TELETAN AUKERA**

**ESKULANERAKO MATERIALAK**

**BAZTAN**

# Gartzaingo urari buruzko araudia berretsi du Junta Generalak


Ura hartzeko izena emana duten guziek auzolana egin beharko dute

TTIPI-TTAPA

Gartzaingo batzarrak bere garaian onartu zuen ur-zerbitzuaren araudia berretsi du Baztango Junta Generalak. Gartzaingo alkate eta kargodunek eta zerbitzuaren arduradunak osatutako batzordeak ezarritako araudia. Erreglamendu berriaren arabera, eraikin guziek dute ura hartzeko eskubidea, beraien funtzioa edozein izanda ere (etxeak, bordak, biltegiak edo aziendendako ixtegiak), baina ezin izanen da ur-hartzerik egin eraikinik ez duten lurretan. Eraiki gabeko lur-eremu batean ura hartzeko, lehenik obra-baimena eskatu beharko da. Edozein arrazoirengatik eraikina eginen ez balitz, ur-hartzea kendu egin beharko litzateke.

Era berean, ur-zerbitzuaren izena emana duten guziek, Gartzaingo zentsatuak egon edo ez, auzolana egin beharko dute edo, bertzenez, kontsumitutako ur kopuruari gehituko zaion 3.000 pezetak ordaindu.

**ABELZAINZA**



## Orain arte bezala, behik baserritik ateratzeko paperak abeltzainek eurek betetzen ahal dituzte

Azkeneko aste hauetan gai nagusi bat izan dute solasgai inguruko baserritarrek: Nafarroako Gobernuak behiak baserritik ateratzeko norberak betetzen zituen gidak debekatzeko asmoa zuen. Horren ordez, Nekazaritza Bulegoetan bete beharko ziren paperak. Gida hauek bi eguneko balio bertzerik ez dutenez, kezka aunitz zeuden: Zer egin azienda aste bukaeran atera behar bada? zer egin larrialdiren bat edukiz gero? Zer egin harakin batek egun batetik bertzerera abereren bat eskatzen badu? Nafarroako Gober-

nuak bulegorik ez duen herrietan edo astean behin edo bitan etortzen direnean, zer? Bertze komunitateetan baserritarrek gida betetzen ahal dute. Nafarroakoak zergatik ez?

UAGN sinsikatuak adierazi digunez, bilera batzuen ondotik, debekua gibelera botatzea lortu dute. Honela, gidak baserritarrek betetzen segitu ahal izanen dute. Betetzen diren momentutik 48 orduko balioa izanen dute, eta azienda baserritik atera den momentutik, 7 eguneko epea izanen da gidaren kopia Nekazaritza Bulegoetara eramateko.

**flash**

**Xabier Lertxundi**

Iruritako mendizaleak istripu larria izan zuen ilbeltzaren 29an Pirinioetan, Aspe mendia jausten ari zela. Xabierrek 200 metroko eroria izan zuen eta erreskate lan luzeen ondotik, Jacako ospitalera eta Zaragozako Miguel Servet eritxera eramantzen zuten. Larriki zauritua dago.

**Zeberi erreka estazioa**

ur-emia neurtzeko estazioa eraikitzeko lanak Excavaciones y Obras Perez del Rio, S.L. enpresak eginen ditu 29.677.191 pezetaren truke.

**Oihan enkantea**

Baztango Udalak Arteta eta Otsondo Txiki inguruko 2.312 pinu (1.549 metro kubiko zur eta 499 metro kubiko sugur) ateratzeko enkantea deitu du bigarren aldiz, oraingoan %10eko beherapenarekin. Haserako prezioa 11.496.264 pezetakoa da eta proposamenak otsailaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.



**ZUBIRIA  
MINDEGIAK**

- *Etxeak apaintzeko landareak*
- *Baso landareak*
- *Bertako frutondoak*

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)  
Faxa: 948 581274



**BAZTAN**

**ALTZARIAK  
zurgindegia**

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA



**URDAZUBI-ZUGARRAMURDI**

# Alkerdi auzoko San Esteban kaperera inauguratu zuten abenduaren 26an

Bertzalde, bi udalek hartzen dituzten langile berriak euskaldunak izanen dira hemendik aitzin

MARGARI ETA KORO

Zugarramurdi eta Urdazubi tartean dagoen Alkerdi auzoko San Esteban kaperaren inaugurazioa izan ginuen gan den abenduaren 26an. Herritarretatik aparte Xaretako Udalak ere gonbidatuak izan ziren, eta mezaren ondotik, Burkaitzea jatetxean eman zen hameketakoarekin garai berri bat hasi du kaperak hurrene.

Itxura arras aldatu zaio, kanpotik eta barnetik egin direlako lanak, eta horrez gain, orain arte ez zeukan ezkila ere jarri baitzaio. Lan hurren merezimendua alde batetik urdazubiarrei eman behar zaie, denbena auzolanean egin

dutelako; eta bertze aldetik materiala erosteko dirua eman duen jendea eta Udalarari.

Aipatzekoa da modu berean, kaperak Sara-Zugarramurdi-Urdazubi elkartzaren di-tuen *Pottoka Bideko* txoko politenean dagoela. Beraz, bide hau egitera animatzen zaretenok, badakizue, lezetatik aparte kaperak eder hurrene ere ikusteko aukera izanen duzuela.

### Bi herrietako udal langile berriak euskaldunak izanen dira

Hemendik aitzina Urdazubi eta Zugarramurdiko Udaletan langile berriak hartzekotan euskaldunak izanen direlako segurtasuna

eman digute. Bi herrietako Udalek gan den abenduan egindako bilkura berezietan hartutako akordio batez, hemendik aitzina Udaleko lanpostu guztietan sarbide baldintza bat euskaraz jakitea izanen dela onartu baitute.

### Azpiegitura lanak egiteko subentzioa eman dute Iruñetik

Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioiko Departamenduak herrietako azpiegitura lanetan egin beharreko lanen proiektuak diruz lagunduko ditu. Proiektu hauek 1997-99 Hirurteko Planetik kanpo gelditu ziren. Hurrengo Hirurteko Plana, berriz, 2001. urtean jarriko da martxan eta bitartean,



Alkerdiko San Esteban kaperak itxura ederra hartu du, kanpotik eta barnetik egin diren lanen ondorioz.

2000. urtean lan batzuk egiteko banatu ditu dirulaguntzak.

Urdazubi eta Zugarramurdiko Udalen kasuan proiektu bana egiteko dirulaguntza jasoko dute. Urdazubin, sa-neamendu sarearen hodi biltzailea edo kolektorea egiteko hamazaz-

pi milioi terdiko inbertsioa aurreikusi du Nafarroako Gobernuak.

Zugarramurdin, berriz, goi eta behe-tentsioko argindar sareak berri eta transformazio zentrua egiteko 7 milioi pezetako inbertsioa egiteko asmoa dute Iruñetik.



## Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

# ANZABAL

A G E N T Z I A

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tínoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

MENDIALDE  
Jatetxea



AMAIUR • ☎ 948453060

ttipi-ttapa

7.100 harpidedun  
24.000 irakurle

Zure publizitatea  
etxe xoko  
guzietan

☎ 948 631188

**SARA**

# Hamabortz Hektareako eremua hetsia izan da gizaki eta abereengandik babesteko

Lezeetako iparraldeko sartzearen gaineko aldean dago eremua

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

1999ko azaroaz geroz, lezeetako iparraldeko sartzearen gaineko aldean, 15 Hektareako eremua babestua da, Herriko Etxeak eta Akitaniako Eremu Naturaletako elkarteak izenpetu hitzarmen baten ondorioz. Erabaki hori hartua izan da inguru horretan dagoen aberastasun ekologiko paregabearen zaintzeko, bai gizakiek egin ditzaketen kalteetarik (auto eta motoak, paperak...), bai abereek egin ditzaketenariki ere.

Eremu hori hetsia izan da eta Eremu Naturaletako elkarteko kideak den Pascal Arlot-ek egin du bereziki zaindu behar diren landare eta animalien zerrenda. Zerrenda horretan agertzen dira Frantzia begiratuak diren abere eta landare mota batzuk. Ingurumen hori zainduz, bizi baldintza egozkiak sortu nahi dira abere eta landareentzat, ingurumen natural bat sortuz. Gehiago dena, lezeetatik abiatuko diren



Herriko Etxeak eta Akitaniako Eremu Naturaletako elkarteak izenpetu dute eremua babesteko hitzarmena.

bi bidexka antolatua izanen dira, eta gida batek azalduko die bisitariari horrelako eremu bat atxikitzearen garrantzia. Eskoletako haurrek ere eremu hori bisitatzeko parada izanen dute, eta ibilaldi bereziak apainduko dira erakasleen nahiaren arabera.

Bururatzeko, hegoaldeko kixulabea eta borda zaharra berrituak izanen dira eta lezeetako sartzea apaindua izanen da Jacques Blot jaunaren laguntzarekin.

Alabainan, proiektuaren sustatzaileek ez dute ukatzen natura zaintzeko egitasmoa izateaz gain, helburu turistikoa bat dela.

### 2000. urtea ospatuz

2000. urtea ospatzeko Sarako Herriak elkarte guzietako kideak gonbidatu zituen urtarillaren 28an prestatu zuen afarira. Denetara 25 elkarte dire gure herrian. Hor ziren baita ikastetxeetako erakasleak baina funtzio publikoko lan-

gileak eta arduradunak ere. 370 pertsonen aintzinean hartu zuen hitza Aniotzbehare jaunak bere agiantza onenak eskainiz partaide guzietari.

### Atletismo elkarteak

Sarako Izarra atletismo elkarteak sortu da eta 12 lagun biltzen ditu. Lehendakaria Mixel Larzabal da, lehendakari ordea Jean Michel Garat, idazkaria Evelyne Etxegarai eta diruzaina Guy Thibault. Orain

arte, lasterkariak Azkaingo eta Senpereko taldeetan aritu izan dira. Hemendik aintzina, herriko talde baten izenean aritzeko ametsa egia bihurtu da. Herriko Etxeak ateri duen liburuxkari zuzenketa bat eman behar zaio: elkarteak den deneri idekia baita eta ez maila bateko kirolariari. Orduan, Saratar kirolzaleek ez beldurtu eta interesatuak baldin bazarete deitu 05 59 47 52 81 edo 05 59 54 29 17 telefono zenbakietara.

### Presoen alde

Euskal preso politikoan aldeko elgarretaritzeak iragaiten ari dira gure eskualdean, bi astetarik behin herri desberdin batean. Ondoko agerraldia otsailaren 11n, ortziralarekin egiten da Sarako plazan. Hitzordua arratseko 7etan finkatua da.





## ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



## FUNERARIA ZERBITZUAK

### Lesaka-Donoztebe



## MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

**EZKONTZAK**

**Ramon Varela Larrebouré** eta **Neuza Braz da Luz**, Urdazubikoak, azaroaren 30ean.  
**Gustavo Urrea Pombo** eta **Esther Lasarte Goia**, Iruña eta Berakoa, urtarrilaren 22an.  
**Fabienne Berrekoetxea** eta **Arnaud Perrin**, Sara eta Hendaiakoa, urtarrilaren 22an.

**JAIOTZAK**

**Eneko Halty Agerralde**, Urdazubikoa, abenduaren 17an.  
**Iraia Lopez Pagazaurtundua**, Gartaingoa, urtarrilaren 4an.  
**Manex Etulain Bidegain**, Arizkungoa, urtarrilaren 19an.  
**Javier Pacheco Bengoetxea**, Elizondokoa, urtarrilaren 17an.  
**Unai Bikondo Elizalde**, Iruretakoa, urtarrilaren 21ean.  
**Ioritz Arburua Leonis**, Berakoa, urtarrilaren 24an.  
**Iratxe Otxandorena Pikabea**, Elgorriagakoa, urtarrilaren 18an.  
**Lorena Juanena Ezkurra**, Doneztebekoa, abenduaren 22an.

**HERIOTZAK**

**Maria Suhars Larraia**, Urdazubikoa, urtarrilaren 15ean, 85 urte.  
**Modesto Iturburua Iribarren**, Arizkungoa, urtarrilaren 18an, 52 urte.  
**Francisca Elisa Lazkano Larunbe**, Arizkungoa, urtarrilaren 19an, 95 urte.  
**Martin Irisarri Organbide**, Elizondokoa, urtarrilaren 22an, 74 urte.  
**Inocencia Zozaia Etxeberria**, Berroetako, urtarrilaren 23an, 98 urte.  
**Juan Fermin Irigoien Inda**, Elizondokoa, urtarrilaren 25ean, 84 urte.  
**Jose Luis Bidegain Elizondo**, Iruretakoa, urtarrilaren 30ean, 70 urte.  
**Barbara Azpirotz Zestau**, Leitzakoa, urtarrilaren 10ean, 90 urte.  
**Mª Antonia Albistur Bikandia**, Leitzakoa, urtarrilaren 14an, 88 urte.  
**Alfonso Altamira Goizueta**, Goizuetakoa, urtarrilaren 27an, 73 urte.  
**Maribel Iturbe Urrotz**, Etxalarren, urtarrilaren 27an, 64 urte.  
**Visitacion Lasarte Hernandorena**, Zubietakoa, urtarrilaren 24an, 81 urte.  
**Josephine Alsuguren**, Sarakoa, urtarrilaren 17an, 89 urte.  
**Françoise Miranda**, Sarakoa, urtarrilaren 26an, 83 urte.  
**Marie Hélène Caton**, Sarakoa, urtarrilaren 17an, 87 urte.

**ESKELAK  
TTIPI-TTAPA  
TELEBISTAN**

☎ 948 63 11 88



**Arantxa  
TELLETXEA SANSIÑENA**

*Beti maite izan zaitugu eta  
betiko gure gogoan izanen zara  
Lagundu gaitzazu gure beharretan.*


Mª Luisa, Juanita eta Joxeparen  
familiaren partetik



**Jasone HUARTE UGARTE**  
2000ko urtarrilaren 31n, 21 urte

*Zure begietako dizdirak  
izar batean piztuta  
zure irrifar eta alaitasunak  
uzten gaitu bihotza beteta.  
Gure artean beti egongo zara.*

Arraioz eta Elizondoko familia.



**Bizikleta  
Tailerra**

*Salmenta  
eta  
konponketa*

*Laister  
zabalik*

Kanttonberri 1 Bis  
**BERA**  
Tel-Fax: 948 631 218

**Jasone HUARTE UGARTE**

*Agur Jasone, agur ikasle  
Ikastolako landare.  
Gureartetik pasatu zinen  
asots aunitz sartu gabe.  
Gugandik orain lekutu zara  
berdin, ixil, ustegabe.  
Gure artean egonen zara  
ez gara ahaztuko behin ere.*

Baztan Ikastola  
Elizondo, 2000ko otsailaren 1a



**BAZTAN FUNERARIA**

EHORZKETA ZERBITZUAK  
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
TRASLADOAK

Menditurri, 1 • ELIZONDO • ☎ 948 580373 • 608 776176


## 560 kiloko Euskal Herriko sokatira txapelketaren finala otsailaren 19an Lesakan

- Munduko txapelketa baino lehenago azken aurreko saioa izanen da
- Lesakako Beti Gazte taldeak 680 kiloko txapela jantzi du

Otsailaren 19an burutuko da Lesakako udal pilotalekuan Euskal Herriko goma gaineko 560 kiloko txapelketaren finala. Hau idazterakoan azken kanporaketa saioa jokatzeko bazen ere, Lesakako Beti Gazte eta Aresoko taldeak bertan izanen dira, dudarik gabe. Bi taldeek txapelketa bikaina burutzen ari dira pisu guzietan, baina batez ere lesakarren lana nabarmentzekoa da. Igande honetan egingen den azken saioaren faltan, 680 kiloko txapela segurtatua du dagoeneko Beti Gaztek. Larunbat honetan, otsailak 12, jokatu da Abadiño pilotalekuan 600 kiloko finala eta bi talde nafarrek Abadiño bertako taldea izanen dute arerio nagusia txapelaren borrokan.

Lesakako 560 kiloko finalaren ondotik, igandean, otsailaren 20an, jokatu da 640 kiloko txapelketaren finala Arronizen, honenbertzez Euskal Herriko txapelketei akabaila emanez.

Euskal Herrikoaren ondotik, Munduko txapelketaren txanda izanen da. Otsailaren 24tik 27ra burutuko da Holandako Slagharen herriari. Joan den urtean egin zuten bezalaxe, urrezko dominaren bat ekartzeko itxaropenarekin joanen dira Holandara Aresoko eta Beti Gazteko tiralariak, nazioartekoan ez bada klub arteko txapelketan. Hala izan dadila!



Beti Gazte eta Aresok lan ederra egiten ari dira Euskal Herriko txapelketan. Abadiñoarekin batera txapelak jantzeko faboritoak dira. Argazkia: Aitor

**Beñardo IANTZI** *Beti Gazteko tiralaria*

«Munduko txapelaldun izatea ez da errex, finalean denek bikain egon behar baitute»

**680 kiloko txapela segurtatua duzue. Zein asmo dituzue Euskal Herriko bertze hiru finaletarako?**

Itxaropen guziekin joanen gara. Orain arte ederki gabiltza baina finalean dena aldatzen da. Orain arte ikusitakoaren arabera, Areso, Abadiño eta gu izanen gara faborito, baina Torreko landa ere kontuan hartu beharko da 600 eta 640 kiloko kategoriatan.

**Eta gero, Munduko txapelketa Holandan. Urrezko dominaren bat ekartzeko moduan zaudete?**

Munduko txapelketa bertze kontu bat da. Inork ez dezala pentsa iaz irabazi genuelakoz aurten ere seguru irabazi behar dugunik. Finaleko egunean denak bikain egon behar dute eta hori ez da errex, baina saiatu saiaturako gara.



### Baztan-Bidasoako futbito txapelketa azken txanpan

Lehendabiziko fasea akitu ondotik aste honar honetan hasiko da Baztan-Bidasoako futbito txapelketaren azken fasea. Final laurdenetan, lau multzoetako lehen sailkatuak ariko dira otsailaren 20an Donezteben. Hau idazterakoan, lehen faseko partidu baten faltan, Titi Ostatuak eta Fonda Ostatuak segurtatua zuten txartela. Lehen multzoan Xanpalek eta laugarrenean 12 Ostatuak ere sailkapenaren buruan akitzeko aukera aunitz ziztuzten.

Bigarren eta hirugarren postuan sailkatutakoek elkarren kontra jokatu dute igande honetan Sunbillan. Final laurdenetan sartzeko, partidua irabazi egin beharko dute.

Beraz, momentuan multzoko azkenak bakarrik gelditu dira txapelketatik kanpo: Elgorriaga lehen multzoan, Itxasurak hirugarrenean eta Zubipunta ostatua laugarrenean. Bigarren multzoan, partidu erabakigarria jokatzeko zuten igande honetan Basaburua eta Zubietak, azken postu hori saihesteko.

Final laurdenen ondotik, finalerdia otsailaren 27an eta finala martxoaren 12an jokatuko dira Donezteben.



❖ **Patxi Vila**

kirolari beratarra azpitxapeldun suertatu da Espainiako Neguko Triatloi txapelketan. Lasterka eta bizikletan ibiltzeaz gain, iraupen skia egin behar da kirol honetan. Espainiako txapelketaren ondotik, Mundukoan parte hartuko du Patxi Vilak.

❖ **Iñaki Mihura**

Arraiozko korrikalari gazteak Nafarroako kros txapelketa irabazi du jubencil mailan. Nafarroako Kopan eta Leringo San Silvestrean ere azkarrena izan da gazte mailan. Mihurak 17 urte ditu eta joan den igandean Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko zen Muskizen.

❖ **Tito Gorostiaga**

Ezkurrako palistak ongi hasi du Espainiako binakako txapelketa. Urkiarekin bikote egiten du eta lehen partiduan 45 eta 44 irabazi zieten Juan Pablo eta Daniel anaiei.



Perurena semea eta aita, Zelai eta Goenatxo, Zapiainek sagardoa nola ateratzen duen ikusten.

## Harrijasotzaileak omendu ziren Iruñeko Klean Gora sagardotegian

■ Perurena aita-semeak eta Mikel Saralegi eskualdeko ordezkariak

Txotx denboraldia-  
ren irekiera aprobetxatuz omenaldia eskaini izan dio Klean Gora Sagardotegiak harrijasotzaileei. Hone-  
la, urtarrilaren 26an egin zen ekitaldian gonbidatu bereziak izan ziren sagardotegian: Iñaki eta Inaxio Perurena aita-semeak, Migeltxo Saralegi, Juan Jose Unanue

'Goenatxo' eta Jose Antonio Gisasola 'Zelai'. Iñaki Perurena gripear-  
ekin zelakoz eta Saralegi, entrenamenduen-  
gatik, berandu iritsi zelakoz ez ziren lanean aritu, baina gainerakoek erakustaldi polita eskaini zuten. Inaxio Perurenak sei altxaldi eman zizkion 163 kilo-  
ko harriari. Goenatxok

200 kiloko laukiari sei altxaldi eman zizkion 35 segundutan. 150 kilo-  
ko kubikoarekin ere aritu zen lanean eta oroi-  
garri gisa, sagardotegian bertan utzi zuen harria. Zelai, azkenik, 125 eta 150 kiloko harri zilindrikoarekin aritu zen lanean.

Hirugarren urtea da Klean Gora sagardo-

tegian omenaldia eskaintzen zaiela herri kirolean ari diren kirolari-  
riei. Duela bi urte pilotariak gogoratu zituzten eta Retegitarrak gonbi-  
datu zituzten. Iaz, aizkoraren txanda izan zen eta bi aizkolari haundik egin zuten erakustaldia, Patxi Astibia leitzarrak eta Ezkurrako Mikel Mindegia.

## Baztan-Bidasoako paxaka txapelketaren final laurdenak larunbat honetan

■ Finala, berriz, otsailaren 26an jokatu da Iruritan

Baztan-Bidasoako Pasaka txapelketa final laurdenetan sartuko da asteburu honetan. Txapelketa, bi multzotan banatutako zortzi taldek jokatu dute. Ilbeltzaren azken asteburuko jardunaldian honako emaitza hauek izan ziren:

• **Lehen multzoan:**  
- Doneztebeko Luismi Apezetxea, Patxi Ganboa eta Peio Iribarrenek, 9; Iruritan-  
ko Mitxelena, Prim eta Unanuak, 0  
- Oizko bi talderen arteko derbian, Ariztegi, Ariztegi eta Fagoagak, 9; Mindegia,

San Miguel eta Zelaietak, 7

• **Bigarren multzoan:**

- Grajirena, Mendiola eta Mendiolak (Oitz), 9; Arraztoa, Etxeberria eta Mariñelarenak (Doneztebe), 6.

- Karrikaburu, Ga-

mio eta Laurnagarai ek (Arraioz), 4; Aldabe, Artazkoz eta Ibarrolak (Doneztebe), 9.

Lehendabiziko fasean lortutako sailkapenaren arabera jokatuko dira final laurdenak Iruritan otsailaren 12an: multzo bateko lehendabizikoa, ber-

tzearen laugarrenaren kontra ariko da; bigarrena hirugarrenaren kontra, etabar. Finalerdia otsailaren 19an jokatu da eta finala otsailaren 26an Iruritan.

Orain arte ikusitako jokuekin gustora daude antolatzaileak.

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### MENDI IRTEERAK

#### ELIZONDO

##### ► Otsailaren 13an

Dolmenen ibilbidea eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

► Otsailaren 20an berri-  
ritz, Leitzara joanen dira.

### ERAKUSKETAK

#### BERA

##### ► Otsailaren 27a bi- tarte

Munduko bazter guzietako musika tresnak. Kultur Etxean, arratsaldeko 6etatik 8etara.

### SOLASALDIAK

#### BERA

► Otsailaren 11n Gurasoentzat hitzaldia, Ricardo Baroja ikastetxeak antolatua. Arratsaldeko 7etan lamotenean.

### ZINEA

#### LEITZA

► Otsailak 11-12 "La lengua de las mariposas".

► Otsailarek 18-19 "Buena Vista Social Club".

#### BERA

► Otsailak 13 "Bagdadeko lapurra", arratsaldeko 5etan Kultur Etxean.

### SKI IRTEERAK

#### BERA

##### ► Otsailaren 19an

La Mongieko estaziara skiatzera joateko autobusa antolatu du Agera Mendi Taldeak. Larunbatean joan eta egunean berean egingen dute itzulia. Apuntatzeko: 948 630 362.

## TELEBISTAKO TXOKOA

| OTSAILAREN 9TIK 11RA |                  |                  |                  |                  |                           |
|----------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|---------------------------|
|                      | ASTELEHENA       | ASTEARTEA        | ASTEAZKENA       | ORTZEGUNA        | ORTZIRALA                 |
| 11:00                | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.)          |
| 13:00                | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Bideg. (errep.)  | Berriak (errep.)          |
| 17:00                | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.)          |
| 21:00                | Berriak          | Berriak          | Berriak          | Berriak          | Berriak                   |
| 21:30                | Bidegurutzean    |                  |                  | Herriz-herri     | Bera, Arantzeta eta Iuren |

| OTSAILAREN 14TIK 18RA |                           |                  |                  |                           |                            |
|-----------------------|---------------------------|------------------|------------------|---------------------------|----------------------------|
|                       | ASTELEHENA                | ASTEARTEA        | ASTEAZKENA       | ORTZEGUNA                 | ORTZIRALA                  |
| 11:00                 | Berriak (errep.)          | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.)          | Berriak (errep.)           |
| 13:00                 | Berriak (errep.)          | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.)          | Berriak (errep.)           |
| 17:00                 | Berriak (errep.)          | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.)          | Berriak (errep.)           |
| 21:00                 | Berriak                   | Berriak          | Berriak          | Berriak                   | Berriak                    |
| 21:30                 | Jokoa Solas               |                  |                  | Zuzenean                  | Herriz-herri               |
|                       | Eskualdeko kanalen mundua |                  |                  | Edu Murumendiaren DANTZAK | Leska, Igantzi eta Etxalar |

| OTSAILAREN 21ETIK 23RA |                           |                  |                                  |
|------------------------|---------------------------|------------------|----------------------------------|
|                        | ASTELEHENA                | ASTEARTEA        | ASTEAZKENA                       |
| 11:00                  | Berriak (errep.)          | Berriak (errep.) | Berriak (errep.)                 |
| 13:00                  | Berriak (errep.)          | Berriak (errep.) | Berriak (errep.)                 |
| 17:00                  | Berriak (errep.)          | Berriak (errep.) | Berriak (errep.)                 |
| 21:00                  | Berriak                   | Berriak          | Berriak                          |
| 21:30                  | Jokoa Solas               |                  | Tererekin Solasean               |
|                        | Eskualdeko kanalen mundua |                  | Lehenengo kontuetan solasaldicik |



#### ZUZENEAN

##### Edu Murumendiaren

Guzuzko dantza honek sortu duen Aukeran dantza konpainiak Beran eskainitako emanaldi ikusgarria orain TIPI-TTAPA TELEBISTAN. Abangoardiako dantza nahiz herrikoak gustuko dituztenentzat huts egin ezinezko zita.

#### HERRIZ HERRI:

##### Igantzi berriak

Tarte tiki baten ondoren Herriz-herri saioan Igantzi berriak izanen da herriko atzineran. Isaso Irigien aurkezlearen eskutik Igantzi herriko kontu ezagutzeko modua izanen da.



## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.000 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 138 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 65-70 pta./kiloa, bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
  - **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal  
Extra . . . . .550  
1.koa . . . . .530  
2.koa . . . . .500
  - **Urruxak:** Pta./kg. Kanal  
Extra . . . . .560  
1.koa . . . . .530  
2.koa . . . . .510
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
  - **Nabarrak:** urruxak 12.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
  - **Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idixkoak 44.000 Pta.
  - **Behi zaharrak:**  
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

## Liburuak



### «Gerturik daukagu odola»

Joxean SAGASTIZABAL  
PAMIELA

Alberdania argitaletxearekin "Kutsidazu bidea, Ixabel" liburua argitaratu zuen, eta oihartzun handia izan zuen.

«Joxe Andres Sagastizabal Errazuk orain asko ez dela motoa erosi zuen. 49 cm<sup>3</sup> horien gainean dabilela hegoaldeko haize beroak (beroa asko gustatzen zaio) dakarzkion kontakizunei buztanetik heldu eta liburuetan gordetzen ditu». Horrelaxe aurkezten du bere burua Joxean

Sagastizabalek liburuaren barnealdean.

Euskaraz solasteko euskaldun zaharren odola xurgatzen duen euskara ikasle baten istorioa da hau, hori eginez argi eta garbi mintzatzeko gai dela konturatzeko baita egun batean. Hortik abiatuta, Euskal Herri osoa euskalduntzeko plan bat martxan jartzen dute instituzioetatik. Asisko eta Markoren marrazkiek ilustratzen dute kontakizuna.

# Merkealdietan erosteko aholkuak

Aurtengo merkealdiak akitzen ari dira dagoeneko. Gehiegizko kontsumoak berri ere ondorio latzak dakartzatza, gure sakelarentzat, gizar-tearentzat eta ingurugiroarentzat. Zer egin orduan?

Merkealdietako prezio tikiagoak aprobetxatu, hori bai, kontuan hartuz gehiegikeri horri aurre egiteko behar duguna bertzerik ez dugula erosi behar eta hori lortzeko modurik errezena etxean zerrenda bat prestatzea dela. Bertzenaz jai dugu, merke eta kalitate gehiagoko itxura emanez eta beharrak sortuz publizitateak nahi bezala ibiltzen gaituelako.

### SALTZAILEEN BETEBEHARRAK

Merkealdietan, aitzineko 30 egunetan salgai egon diren gauza berberak merkeago saldu behar dituzte, eta denda osora zabaldu ahal izateko produktuen %50a baino gehiago prezio baxuago batean eskaini. Horretarako ikus-terako moduan egon behar du te prezio zahar eta berriek.

Garai honetan saltzen de-



Prezio zahar eta berriek bezeroaren bistan egon behar dute.

nak kalitate berdinekoa izan behar du. Ez dugu inolako aitzakiarik onartu behar eta gauza akasdunak aldatzeko eskubide osoa dugu. Gauza

Erosterakoan, denbora hartu eta produktuen etiketak begiratu behar ditugu beren ezaugarri nagusiak ezagutzeko.

akasdunak "saldo" direlakoetan saltzen dira.

Ez dugu presaka erosi behar. Erosterakoan, denbora hartu eta produktuen etiketak begiratu behar ditugu beren ezaugarri nagusiak ezagutzeko. Alde horretatik, erran behar da, arropa multzoak, gauza merkeen ondoan produktuak kokatzea eta bertzelako trikimailuak erabiltzen direla merke itxura emateko.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KONTZERTUAK

### BERA

#### ► Otsailaren 11an

"Voogie Van" 10,30etan Pui ostatuan.

#### ► Otsailaren 18an

"Javier Sun" 10,30etan Pui ostatuan.

#### ► Otsailaren 19an

"Raeo" eta "El Corsal Desastre" taldeak. Kultur Etxean. Arratseko 10etan. 800 pta.

## OIARTZUN

#### ► Otsailaren 11an

"Azucarillo Kings". Arratseko 11etan. Pagoa garagardotegian.

#### ► Otsailaren 18an

"Skunk". Enbata disko berriaren aurkezpena. Arratseko 11etan. Pagoa garagardotegian.

#### ► Otsailaren 20an

"Slackers". Ska jamai-karra, Euskal Herrian emanen duten kontzertu bakarra. Arratseko 8etan. Pagoa garagardotegian.

#### ► Otsailaren 24an

"Las Gambas". Arratseko 11etan. Pagoa garagardotegian.

Sarrerak:

Aurretik: 1.500 pta.

Egunean: 1.800 pta.

## GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfñora, deitu behar da

#### ► Otsailaren 7tik

**13ra** Bera, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza eta Goizueta.

#### ► Otsailaren 14tik

**20ra** Etxalar, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), eta Goizueta.

#### ► Otsailaren 21etik

**27ra** Arantza, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), eta Goizueta.

## DISKAK



«Zero»

PIZTIAK

GAZTELUPEKO HOTSAK

Gaztelupeko Hotsak zigiluarekin "Argia eta itzala" diskoa ateratzen ondotik Piztiak taldea berpiztu egin zen zertxobait, denbora luzean erdi lozorroan egon ondotik. Aurten "Zero" izeneko CDA plazaratu dute Durangon, eta orduztik abesti berriak aurkezten ari dira herriz herri. Bertzeak bertze, Beran eta Elizondon aditu ahal izan ditugu gipuzkoar hauek. Aspaldiko taldea da Piztiak,

bainan ez dute egundaino izen haundirik izan hemengo taldeen artean, beharbada egiten duten musikak ez duelako Euskal Herrian gehiegi saltzen. Rock&roll doinuak maite dituzte piztiak. Gitarrek hartzen dute ia abestien pisu guziaz, eta melodia itsekikorrek osatzen dira. Disko honetan 13 abesti sartu dituzte, eta baita "Ordu bete" izeneko PCrako bideo bat ere.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).  
1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

## ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

Hegoaldetik deitzeko  
Iparraldetik 00-34-

# 948631188



**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

## ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**ADOS**

**IRURITA.**

- Lur eremu eraikigarria salgai.

© 948 451 841

**ARANTZA.** Baserria salgai, landa etxea egiteko modukoa. ☎ 948 631 188.

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**ADOS**

- Eskuera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

© 948 451 841

**BERA.** 1. pisu bat edo igogailua duen bat erosi nahi dugu. ☎ 948 451 841 edo 607 978 656.

## ETXEBIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

**ELIZONDO.** Santiago karrikan 95 m<sup>2</sup>ko pisu moblezatua errentan emateko. Kalefakzioarekin. ☎ 948 452 199.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**BERA.** Pisu bat hartuko nuke errentan. Lagun bakarrentzat edo konpartitua. ☎ 948 634 039.

**BERA.** Pisu moblezatua hartuko genuke errentan. ☎ 600 095 512.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

**LESACA.** Bajera salgai Zarrandia 8.ean. ☎ 948 210 990.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**BERA.** Bidasoa karrikan bulegoak errentan emateko. ☎ 948 630 261 / 630 977 207.

**BERA.** 24 m<sup>2</sup>ko denda, komertzioa jartzeko prest, eta 29 m<sup>2</sup>ko almazena edo jarailea errentan emanen nituzke. Biek elkarrekin edo bereiz. Argia eta ura badute. ☎ 948 631 375 edo 630 240.

**LESACA:** Albistur eta Bittoria karrikan bi lurrazpiko bajera errentan emateko. ☎ 948 637 948 (eguerditan).

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

**ARANTZA ZYRGINDEGIA**

*Jose Miguel Errandonea*

*Klase guztietako zurgin lanak*

Osina auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

## LANA

### 301 ESKARIAK

**Emakume** batek lan egiteko eskaintzen du bere burua. ☎ 948 450 357 (eguerditan).

35 urteko emakume batek **sukaldaritzan** lan eginen luke. 4 urteko esperientzia. ☎ 948 637 450.

**Emakume bat** edozein lanetan arituko litzateke egunean 2-3 orduz. ☎ 948 630 238.

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

Berako jatetxe batean **sukaldaria** behar dugu plater konbinatuak eta menuak emateko. Barran aritzeko zerbitzari bat ere bai. ☎ 610 843 316.

## LAN

### ESKAINTZA

ELIZONDOKO BULEGO BATEAN ADMINISTRARIA BEHAR DA EGUN ERDIZ ARITZEKO

- Autoa izatea beharrezkoa.
- Ordenagailua ibiltzen jakitea baloratuko da.
- Behin-behineko kontratua eskaintzen da, finkora pasatzeko aukerarekin.

ARGIBIDE GEHIAGO:

☎ 948 45 16 10  
☎ 608 77 94 76

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Renault 5** salgai, NA-L. Egoera onean. 120.000 pta. ☎ 948 630 874.

**Renault Super 5** diesela salgai. 5 atekoa. Ongi dago. ☎ 610 221 528.

**R-9 TSE** salgai. NA-M. ☎ 948 631 357 (gaueko 10etatik aitzinera).

**Ford Escort** Atlanta 1.6 salgai. 16 V. SS-AT. 65.000 km. Egoera ezinhobean. ☎ 610 888 390 edo 943 628 637 (Javi).

**Mercedes Sprinter** furgoneta salgai. 120 CV turboa. Atzean gurpil bikoitza. 3 urtekoa. ☎ 948 637 127.

**Rieju First** motoa salgai, 49koa. ☎ 948 630 052.

**Suzuki Suzi** salgai, Arrow eskapea, karburadorea eta potentzia filtroa. Egoera onean. ☎ 948 510 324.

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

## MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**

Land Rover 88 motza,  
Seat Marbella, Corsa,  
Astra 1.7 TD, R-19 D.

Suzukiak aukeran

**BOAN TAILERRA**  
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
☎ 948 63 06 23 • BERA

## ANIMALIAK

### 603 KLINIKAK

**ALBAITERITZA KLINIKA**  
Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak  
☎ 948631362 • Legia 13 • BERA





# BORTZIRIETAKO IKASTETXE PUBLIKOETAN...



ARANTZA: Herri Eskola  
☎ 948 634 104



IGANTZI: Herri Eskola  
☎ 948 637 829



LESAKA: Irain E.P.  
☎ 948 638 006

- ✓ Hezkuntza euskaraz
- ✓ Dohainik
- ✓ Jantoki eta garraio zerbitzuekin

✓ Integratzailea

✓ Teknologi berriez baliatuta

✓ Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan

✓ DBH, Batxilergoak eta LH bertako institutuan

✓ Lesaka eta Beran 2 urteko umeentzako matrikula irekia



BERA: Ricardo Baroja E.P.  
☎ 948 625 019



ETXALAR: Landagain E.P.  
☎ 948 635 215



TOKI-ONA Institutua  
☎ 948 625 000

# ...HAINBERTZE!

*Izen ematea: Apirilaren 16a arte*


# URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.

**OHARRA:**  
Argazki bakoitzarekin batera **35 Ptako 15 seilu** igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



Lesakako **Modesto** eta **Maialen**k urtarilaren 30ean 59 urte bete dituzte ezkundurik. Auniz urtez eta muxu haundi bana zuen Lesaka, Iruñea eta Doneztebeko familiaren partetik. Txin-txin!



**Maialen Belarra Eneverreaga** doneztebarrak 8 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak guraso eta ahizparen partetik.



**Txomin Sapuppo** doneztebarrak 13 urte bete ditu otsailaren 1ean. Zorionak zure familiaren partetik.



**Jabier Apeztegia Iturria** 4 urte beteko ditu otsailaren 2an. Zorionak Naiara, guraso eta amaxiren partetik.



**Karmele Rekondo** lesakarrak eta **Isabel Ferrero** beratarrak otsailaren 9 eta 5ean beteko dituzte 23 eta 84 urte. Zorionak familiaren partetik.



**Jesus Garazok** otsailaren 14an urteak eginen ditu. Zorionak Lesakako familiaren partetik, bereziki "Mokoliko"ren partetik. Aupa Gallego!



**Maider Oartzabal** irundarrak 17 urte beteko ditu otsailaren 24an. Zorionak eta muxu bat aita eta Imanol anaiairekin partetik.



**Gorka Elizetxe** amaiurtarrak urteak bete ditu urtarilaren 28an. Zorionak bere familiaren partetik.



**Manuel Goñi** oiztarrak otsailaren 17an beteko ditu urteak. Egun zoragarria pasa. Zorionak familia guzua eta Imanolen partetik.




**Julen Dorronsoro Arozena** doneztebarrak 6 urte bete ditu otsailaren 7an. Zorionak guraso, aitaxi-amaxi eta Sonearen partetik.



**Eider Pikabea Mitxelena** beratarrak otsailaren 14an 7 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama eta Josebaren partetik.



**Jon Ubiria Sarasola** lesakarrak 3 urte beteko ditu otsailaren 21ean. Auniz urtez familiaren partetik. Aupa Erreala!



Elizondoko **Nagore Irigoien** eta Sunbillako **Sara Salaberriak** 6 urte beteko dituzte otsailaren 11 eta 24an. Zorionak Ugaitzen partetik.



**Felix González Castro** aranztarrak urteak bete ditu otsailaren 6an. Zorionak eta besakarda bat Maxuxen partetik.



**Estitxu Etxenike Errandonea** otsailaren 17an beteko ditu 6 urte. Zorionak Berako eta Arizkungo familiaren partetik.



Aupa **Koxme**, morenazo, otsailaren 2an bertze urte bat beteta ea fundamentu gehiago etortzen zaizun. Muxu bat arrebarren partetik.



Exalarko **Xabier Berruetak** urteak bete ditu otsailaren 2an. Ea zure haurtzaroko goxotasuna berreskuratzen duzun. Zure neska-laguna.



**Markel Etxebeste Yanci** beratarrak otsailaren 15an beteko ditu. Aupa gure pilotaria! Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



**Maider Mindegia Eleta** urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak bere ahizpa Nerea eta familiaren partetik.



**Idoia Leonet** oiztarrak 3 urte bete ditu urtarilaren 29an. Zorionak Goizuetak eta Oartzungo familia guziaren partetik.



**Unai Larretxeak** otsailaren 3an 16 urte beteko ditu. Ia ez diguzu beldurrik ematen. Zure ñexkak.



**Pepita Goia** beratarrak urteak bete ditu otsailaren 8an. Auniz urtez bizilagunen partetik.



**Aiora Biurra-rena Bertiz** beratarrak otsailaren 14an 3 urte beteko ditu. Zorionak Bera eta Lesakako familiaren partetik.



**Naroa Mendiberri** beratarrak 10 urte bete ditu otsailaren 4an. Zorionak familiaren partetik.



**Aiora Biurra-rena** beratarrak otsailaren 14an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta musu haundi bat Unai eta Naroaren partetik.



**Felix González Castro** beratarrak urteak bete ditu otsailaren 6an. Zorionak Arantzako familia eta bereziki iloben partetik.



**Xuban Eugi Goñi** elizondarrak otsailaren 9an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat exeko politenari.

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

**Artzain aleman** zakurra edo nahasketa nahi nuke. ☎ 948 451 624 (eguerdi eta ilunabarretan).

**Ardi ernariak** salgai. ☎ 948 635 019 (arratsetan) 639 670 231.

Esnetako **5 miga** eta **bi behi gazte** salgai Amaiurren, denak ernari. ☎ 948 580 230.

Lau urteko **aharia** salgai. ☎ 948 610 839 edo 948 397 070.

Behi baten **deretxoak** erosi nahi dira. ☎ 948 637 378.

## DENETARIK

### 701 GALDU-AURKITUAK

Beran **giltzaria** galdu da, Alkaiaga eta Euskalduna artean. Urrutiko agente beltza, eta egurrezko domina (Forestiere Nicolas jartzen du). ☎ 670 429 158.

**2 CD-Rom** eta instrukzio liburua galdu genuen urtarilaren 31n Berako Kanttonberri karrikan. ☎ 948 630 688.

Beran, Altzateko ikastolaren atarian **belarritako** bat harrapatu genuen joan den urtarilaren 16an. ☎ 948 630 103.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Pentium MMX 200** ordenagailua salgai. 64 mega, 4,2 gigako disko gogorra. Monitorerik gabe 60.000 pta eta monitoreanekin negoziatu beharra. ☎ 649 069 454 (Jose Manuel).

2000 litroko piza hedatze-ko **zisterna** salgai. Alfamarkako 430 litroko esne-tankea eta behi-jeizteko makina salgai. Hiruak egoera onean eta gutxi erabiliak. ☎ 608 977 205 (Ignacio) edo 948 451 525 (gaue-tan).

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**Mutil gazte** batek adiskidetasun eta postaturke harremana nahiko luke hemen-gomutilekin. Idatzi Iruñeko 1174 posta kutxatilara.

**Aranon** bizi den Mariaje Zugarramurdiri goraintziak eta muxu haundi bat, Bera eta Donostiako **Martxiarenarren** partetik.

**Berako** Jon Telletxeari: kontuz ibili zabilzan saltsan. Doneztebeko lagunen partetik.

**Pepita Goiari:** urrunin egoetik haxe du makurna, retratua kontsegitu nahi ta ezin. Auniz urtez, ama. Josema eta Patxi.

**Eratsungo playboypilota-**riari: zurekin maitemindurik nago eta espero dut lagun onak baino gehiago izatea.

# DBH ikastolan

egiteko matrikula epea zabalik

otsailaren 21etik aitzina. Informazioa eta matrikula

Altzateko egoitzan: 948 630 172 [bera@ikastola.net](mailto:bera@ikastola.net)



bortzirietako

Labiaga  
Ikastola

dbh ikastola



Haur Hezkuntza eta  
Lehen Hezkuntzarako  
MATRIKULAZIO EPEA  
ZABALIK

**25 urtez etengabe lanean!**



Labiaga ikastola

Tfno: 948 630 172

[bera@ikastola.net](mailto:bera@ikastola.net)



<http://www.jalgi.com/>

Tantirumairu ikastola

Tfno: 948 637 308

[lesaka@ikastola.net](mailto:lesaka@ikastola.net)



**HEMEN  
HEMEN**

**BIZI  
IKASI**

**TOKI ONA Institutua**

**Aurreinskripzioa:**

**D.B.H.:** Otsailak 21 - Martxoak 7

**LANBIDE HEZIKETA** eta

**BATXILERGOA:** Maiatzak 2tik 12ra

**BERA** - 948 625 000 Tfnoa. – posta elek.: [iesbera@pnte.cfnavarra.es](mailto:iesbera@pnte.cfnavarra.es)  
web orria: [www.pnte.cfnavarra.es/iesbera](http://www.pnte.cfnavarra.es/iesbera)